




• urtekaria •

2015



*Durangaldea
bizia eta ezagutu!*

DURANGOKO MERINALDEAREN AMANKOMUNAZGOA

Astola auzoa, 26.
Abadiño, 48220.

Tel.: 946 818 116
mdurango@bizkaia.org
www.mdurango.org

GIZARTE ZERBITZUAK

- Oinarrizko gizarte zerbitzuak
- Etxez etxeko laguntza
- Tratu txarrak jasan dituzten emakumeei arreta psikologikoa eta juridikoa
- Pertsona nagusien dinamizazio zerbitzua
- Adikzioen prebentzio zerbitzua
- Gizarte eta hezkuntza arloan esku hartzeko zerbitzua haur, gazte eta familientzat.

TOKI GARAPENA

HIRI HONDAKIN SOLIDOEN BILKETA

KIROLA

- Atletismo pista
- Trinketa
- Belodromoa

EUSKARA

KULTURA

KONTSUMITZAILEAREN INFORMAZIO BULEGOA

HAUTESKUNDEEK OHIKO ESKEMAK APURTU DITUZTE

Hauteskundeetan urtea izan da aurtengoa. Maiatzean datozen lau urteetarako udal eraketak erabaki zituzten herritarrek, eta abenduan Espainiako Gorteetarako aulkia banatu ziren. Hauteskunde bietako emaitzak aztertzerako orduan, errepikatutako diren bozka joerak daude ikusi dezakegu. Azken hauteskundeetan aulkien banaketa erabakitze aldaezina zirela ekuaziora ohituta geunden, baina aldagai berriek ohiko panorama apurtu dute.

Ahal Dugu alderdiak —edo hark sustatutako herri plataformak— emaitza oso onak lortu ditu hauteskunde bietan. Maiatzean eskualdeko hiru herri handienetako udalbatzarretan ordezkariak lortu zituzten: Hiru Durangon, bi Zornotzan eta bat Elorrioren. Abenduan, berriaz, EH Bilduri Durangaldeko bigarren postua kentzetik 29 bitorahiru geratu ziren.

EH Bilduk kolpe gogorra hartu du azken hauteskundeetan. Espainiako Kongresuan zituen zazpi ordezkarietatik bost galdu zituen. Eskualdea ere beharrezko joera horren isla izan zen eta 4.044 boto galdu zituen orain lau urteko datuekin alderatuta. Maiatzan gazitiki eta gozotiki, bietatik izan zuen EH Bilduk; hainbat herri txikitako alkatetzak mantendu eta Elorrioko berreskuratu zituen, baina Durangon, aginte makila eskuratzeko egindako apustu sendoan, ez zuen esperotako emaitza lortu.

Hauteskunde bietan EAJ izan da alderdirik bozkatuena. Batez ere herririk handienak diren Durangon eta Zornotzan lortutako boto kopuruei esker, eskualdeko nagusitasuna mantendu dute. Udal hauteskundeetan EH Bilduren erronkari eutsi zioten Durangon, eta Zornotzan alkategai aldatzeko (Andoni Agirrebeitia David Latxagaren ordezkari) ez zuen EAJ-ko jarraitzaileen konfiantza eragin. Abenduan ere denboraldi aurre egiteko kapaz izan ziren; 788 boto galdu arren, jeltzaleak izan ziren alderdi tradizionaletatik beharadarik txikiena jasan zutenak. PSE-EE eta PPrentzat hauteskunde biak kezagarriak izan dira eskualdean. Udal hauteskundeetan zinegotziak galdu zituzten, eta orokorrean, aldez, boto asko: 2.539 sozialistek eta 1.150 popularrek.

Politika eta politikarien saltsa alde batera utzita, nabarmen-

tzeko hainbat gertaera izan dira 2015ean. Herriko tabernen auziaren harira, Auzitegi Nazionalak taberna horiek enbarga-tzea agindu zuen. Beranduago, Auzitegi Gorenak epai hori berretsi zuen. Auzian zeuden 111 tabernetatik 107ri ezarri dio zigorra. Tartean daude, Durangoko Intxaurre, Elorrioko Portalekua, Zornotzako Belatxikieta, Zaldibarko Castet, Mallabiko Izar Gorri eta Otxandio Kementsu.

Kirol arloan esaterako. Gurutze Frades triatleta goraiatzeari ez da nobedadea, baina aurtengoa ere merezita dute leku batzuk. Triatloiekin nahikoa ez eta Iron Manetan inoizko mailarik onena eman du. Modalitate horretan seguruena munduko txapelketan parte hartu ahal du 2016an.

Taldeak kiroletan ere hainbat une gogoangarri izan dira. Durango Rugby Taldeak Ohorezko A Mailara igotzeko kanporaketak jokatu zituen; partidu horietan bizitako emozioak balizko igoera batek baino gehiago balio du harrobia eta baloak oinarri dituen klub batean. Igoerako play off-ak jokatu dituzte Zornotzak saskibaloian, eta Durangoko Kulturalak futbolean ere. Ez dute igoerarik lortu, baina harmailetan bizitako giroa lorpenik handienaren parekoa da. Zaleak dira klub baten oinarritzako sostengua eta 2015eko denboraldiaren ilusioa berpizteko balio izan dute.

Kulturaren, zinemagintza, besteak beste, zeresana eman du eskualdean. Zornotza Lara Izagirreren ‘Un Otoño Sin Berlin’ filmeko grabaketan lekuko izan zen, eta Iratxe Mediavilla zuzendariak Elorriko zinema eszenatoki handi bihurtu zuen hiru astez, Argi Film pelikulagaz. ‘Gernika’ filmeko hainbat grabaketa ere Elorrioren eta Atxondon egin zituzten.

Eta Anboton zer? Anbotoko Lagunak kanpaina azpimarratuko dugu. Urtero-urtero euskara hutsezko proiektu komunikatiboa laguntzen duten anbotozaleek hainbat hobari izango dituzte aurrerantzean. Esaterako, Durangaldeko komertzio eta denda askotan deskontuak izango dituzte, eta hilerio hainbat opari zotz egingo ditugu Anbotoko Lagunen artean. Anbotoko laguntzaileei esker ona adierazteko modua da, urtero jasotzen dugun bultzada eta berotasuna itzultzeko ahalegina.

Joseba Derteano (ANBOTOKO kazetaria)

- 4 URTARRILA
- 8 OTSAILA
- 12 MARTXOA
- 16 APIRILA
- 20 MAIATZA
- 24 EKAINA
- 28 UZTAILA
- 32 ABUZTUA
- 34 IRAILA
- 38 URRIA
- 42 AZAROA
- 46 ABENDUA

Anboto komunikabideak - DHK
946 816 558 · anboto@anboto.org

Egin zaitez Anbotoren Lagun eta atera etekina txartelari!

Babestu proiektua urtean 30 euroren truke eta gozatu abantaila eta deskontuetaz



Anbotorenlagunak Lekuan lekuko lagunak

www.anboto.org
lagunak@anboto.org
946 816 558

Anboto
Komunikabideak
@anboto



Lehior Elorriga

Uxarte sagardotegian hasi dute Bizkaiko txotx sasoia

Bizkaiko Sagardogileen Elkarteko hamaika upategiek Zornotzan egin zuten txotx garaia abiatzeko ekitaldia

■ **Herririk herri** - ZORNOTZA

➤ **Sagardoa.** Bizkaiko Sagardogileen Elkartea osatzen duten hamaika upategiek Zornotzako Uxarte sagardotegian egin zuten txotx garaia abiatzeko ekitaldia, 2015 urte hasieran. Bascook jatetxe-ko Aitor Elizegi sukaldaria izan da aurtengo Bizkaiko sagardoaren enbaxadorea, eta berak egin zuen Uxarte sagardotegiko urteko lehenengo txotxa ere. Bizkaiko sukaldaritzan eta sagardoan sinesten duela azpimarratu zuen Elizegik.

Uxarte sagardotegiko arduradun eta Bizkaiko Sagardogileen Elkarteko presidente Jose Antonio Zamalloaren esanetan, 2014an upategietara heldu zen sagarra “oso osasuntsua” izan zen, eta horrek eragina izan du sagardoaren kalitatean. Azaldu zutenenez, 150.000 litrokoa izan da Bizkaiko 2015eko ekoizpena.

Sagarra “mimatzen” duten ekoizle txikien lana goraipatu zuen Zamalloak. Sagardoa kolore hori bizikoa dela esan

zuen; freskoa eta usaintsua, ahoan ari- na baina ibilbide luzekoa, zerbitzatzean apar fina duena, eta erraz edatekoa.

Artean alkate eta alkateorde ziren David Latxaga eta Andoni Agirrebeitia, Irene Pardo Aldundiko Nekazaritza Saileko diputatua, Peli Manterola Jaur-laritzako Nekazaritza Saileko kalitate zuzendaria eta Arantza Eguzkiza Gipuz-koako Sagardogileen Elkarteko presidente izan ziren Zornotzako ekitaldian.



Txelu Angoitia

Juanjo Morenok jaso du Gerediagaren Teila

■ **Kirola** - DURANGO

➤ **Omenaldia.** Juanjo Moreno (Bilbo, 1939) jesuitak jaso zuen Gerediaga Elkarteak ematen duen Teila saria. Durangoko Tabirako saskibaloitza taldearen bultzatzailea izan zen Moreno, eta taldea entrenatzen hasi zenean, Tabirakok herriko harrobia behar zuela izan zen bere aldarri nagusia. Ia bost hamarkada geroago, taldeak 662 jokalaririk eta 120 entrenatzaile ditu. Gerediagaren omenaldiaz, ANBOTO astekarian egindako elkarrizketan zera esan zuen: “Txiki sentitzen naiz. Ni hezkuntza eta kirol arlotik nator. Ondare historikoa, artistikoa eta kulturala bultzatzen duen Gerediagak saria ematea berezia da”.

62 urteko langilearen heriotza gaitzetsi dute

■ **Herririk herri** - ZORNOTZA

➤ **Lan istripua.** Zornotzako Boroa auzoko Forest Traffic enpresan 62 urteko behargina hil zen, azpikontratatuta beharrean zebilela gertaturiko lan istripuaren ondorioz. Sindikatuek eta Zornotza Eraldatuz herri ekimenak elkarretaratzeak egin zituzten, lan istripua salatzen eta neurriak hartzeko eskatzeko. LAB sindikatuak esan zuen “berritoki ere, saihestu zitekeen heriotz bat” izan zela Zornotzako, “berritoki ere, azpikontratatuaren enpresa batean” gertatu zela. Istripuaren arrazoiak ikertzeaz gain, “arduradunak publikoki ezagutaraztea eta neurriak hartzea” eskatu zuen LABek.



Durangon egin dute erlijioen arteko topaketa

■ **Herririk herri** - DURANGO

➤ **Elkarbizitza.** Erlijioen arteko elkarbizitza sakontzeko helburuagaz antolatu zuen Durangoko Tabira pastoral barrutiak Bakearen Domeka. Durangaldeko budistek, eliza presbiterianoaren ordezkariak, eta musulmanek parte hartu zuten ekitaldian. Koldo Katxo (Tutera, 1957) jesuitak eman zuen ANBOTO astekarian ekimeten berri. Zera azpimarratu zuen: “Gaur egun ere, erlijioa aitzakia hartuta, zibilizazioen arteko talka egin nahian dabil. Erlijio erakunde guztietakook egin behar dugu hausnarketa, azterketa eta aldaketa. Horregatik pentsatu dugu Durangaldean dauden zenbait erlijio tradizio elkartu eta ekimen hau antolatzea”.



Natxo Martinez EAJko zinegotzia hil da


Herririk herri - DURANGO

> **Heriotza.** Urtarrilaren 10ean hil zen Natxo Martinez Durangoko EAJko zinegotzia, 54 urte gaz. 1999an hartu zuen zinegotzi kargua, eta hiru hamarkadatan Jai Batzordeko presidente ere izan zen.

Iturraspe eta Boveda Abadiñori laguntzen

Kirola - ABADIÑO

> **Futbola.** Abadiñoko kirol elkarteak jokalarien kromoen albuma kaleratu du, eta Astolan egin zuen banaketa. Ander Iturraspe eta Eneko Boveda Athleticceko futbol jokalariek ekimenagaz bat egin zuten.



Javier Iriondo puntista ohiagaz, bere liburuez

Berbaz - ZALDIBAR

> **Liburuak.** *Un lugar llamado destino* eta *Donde tus sueños te lleven* liburuen idazlea da Javier Iriondo zaldibartarra. Zesta-punta jokalaria jarduteko AEBetara joan zen gaztetan, baina, bere berbetan, "amets amerikarra amesgaizto" bihurtu zitzaion. Esperientzia horretatik zein beste bizipen batzuetatik ikasitakoa irakurleei baliagarri izango zitzaielakoan idatzi zituen aipaturiko liburu biak. "Jende asko etsita egon da, eta liburu honetan argia aurkitu dute", esan zuen egileak, ANBOTO astekariari eskainitako elkarriketan. Hau bezalako gogoetak egin zituen solasaldi horretan Iriondok: "Gure arazorik handiena da pentsatzea ez dugula arazorik izan behar. Baina arazoak dira bizitzan gogortzen zaituztenak, gihar emozionalak indartzen dizkizutenak".

Merkatuko arautegia ez dela betetzen salatu dute

Herririk herri - DURANGO

> **Azoka.** Durangoko merkatu plazako zapatuetak azokan postua ipintzen duten hainbat baserritarrek kritikatu zuten, onartu eta urte bira, merkaturako udal ordenantza ez zela betetzen. Saltzaile askok birsalmenta egiten jarraitzen dutela gaitzetsi zuten aipaturiko baserritarrek.



Gazteen elkargune berria: Txinurriak taldea

Herririk herri - ZALDIBAR

> **Gazteria.** Herriko gazteen elkargune izateko sortu dute Txinurriak taldea, 15 eta 25 urte arteko zaldibartarrek. Urtarrilean, eskolako pilotalekuan egin zuten aurkezpen ekitaldian azaldu zutenek, herriko gazteak harremanetan ipintzeko ekintzak antolatzea da taldearen helburua.

Une oro, egunero, hilero, urtero... gero eta jende gehiago igotzen da. EROSKI Hipermerkatuetako karrora.

EROSKI Hipermerkatuak, zurekin.



aurten ere
aurreztu gurekin



ABADIÑO

EROSKI

zurekin



Fabrika abandonatuen etorkizunaz

Herririk herri - DURANGALDEA

> Hirigintza. Gehienetan enpresek porrot egin eta gero hondamen egoeran generaturiko eraikin abandonatuen zerrenda luzea da Durangaldean: Fundifes, Ducitilor-Fytasa, Cárnicas Felipe Amezua... Eraikinak eraberritzeko edo botatzeko inbertsio barik, urtetan kaltetzen joandako eraikin horiek herritarrentzako traba edo arrisku bihurtzen dira. “Nola berpiztu daitezke espazio horiek?”, “Zer eskumen dute gure udalek?”. Galdera horiekin jo zuen ANBOTOk Hodei Zenikaonandia arkitektoarengana eta

Durango eta Berrizko udaletara. Eraikin horiek jabego pribatukoak direlako, ezer gutxi egin dezaketela erantzun zuten udalek. Zenikaonandiak, aldiz, espazio horiek antolatze eta kudeatzeko plan bat behar dela azpimarratu zuen, eta ondare horien lurjabeek eskubideez gain betebeharrak ere badituztela. Desjabetzen aukera ere badagoela azpimarratu zuen Zenikaonandiak, gogora ekarrita AHTren tankerako proiektuetan desjabetzak gauzatzeko mahai-gaineratzen den interes publikoa.

Desanexioaren 25. urteurrena bete da

Herririk herri - IURRETA

> Osoko bilkura berezia. 1990eko urtarri-laren 10ean egin zuten Iurretaren desanexioaren osteko lehen osoko bilkura, eta udal bilkura berezi batez gogoratu dute data hori, aurtien: adierazpen instituzionala irakurri zuten duela 25 urteko konpromisoak berresteko, eta Elizateko batzarrak sinbolizatzen dituen harrizko mahaia ipini zuten elizpean. Desanexioa bultzatzeko lehen gestora 1983an sortu zen, eta negozioak “gogorrek” izan zirela gogoratu zuen Mikel Sopelana gestora hartako kideak ANBOTOn.



‘Kixote’ estreinatu du Markeliñek Zornotzan

Kultura - ZORNOTZA

> Antzerkia. Urtarrilaren 9an eta 10ean, Zornotza Aretoan eskaini zituen bi emaldietan estreinatu zuen Markeliñe antzerki taldeak *Kixote* antzezlan. Umeei zein helduei zuzenduriko obra da, Cervantesen pertsonaien izaerak oinarri hartuta sortutakoa; Kixote ameslari eta zoroari eta Santxo errealistari buruzkoa.



Gurasolagun proiektua ipini dute martxan

Herririk herri - MALLABIA

> Euskara. Herrigunean euskararen erabilera bultzatzeko helburuagaz abiatu zituzten Berbalagun eta Gurasolagun ekimenak, Mallabian. AEKren babesagaz, eskolan sortu zuten Gurasolagun taldea, eta Berbalagun talde bi eratu zituzten: bata goizez biltzen da eta bestea arratsaldean.



Ekaitz Barrainkua, mendi bizikletari berriztarra

Kirola - BERRIZ

> Mendi bizikleta. 2014an inoizko parte hartzaile gehien izan eta gero, amaiera bereziko mendi bizikleta martxa burutu dute, Berrizen, aurtien. Ekaitz Barrainkuak azaldu zituen probaren ezaugarriak ANBOTOn.



Zornotzako argazki zaharren bilduma

Akuilua - ZORNOTZA

> Liburua. Enrike Renteria margolari zornotzarrak bildutako argazki zaharrekin *Zornotza atzo* liburua kaleratu du Unai Ingunza (Zornotza, 1976) ilobak. Aititak argazki zaharrak biltzeko zuen zaletasuna du Inguza diseinatzaile grafikoak.



Favresse anaiak eta Sean Villanueva, Plateruenean

Kirola - DURANGO

> Jaialdia. Mendiak Hurbilduz jaialdia egin zuten urtarrilaren 16an, Durangoko Plateruenean. Nicolás Favresse, Olivier Favresse eta Sean Villanueva belgikarrek parte hartu zuten jaialdi horretan. Groen-

landian bizitako esperientzia kontatu zuten Plateruenean, eta kontzertua eskaini zuten, ondoren. Mendizale ezagunak dira Favresse anaiak (2011n Urrezko Pioleta saria jaso zuten, esaterako). Menden musika jotzen agertzen diren euren bideoak ere asko zabaldu dira azkenaldian: 2013an oso ezaguna egin zen telefonia konpainia batentzat egin zuten iragarkia.

Ixone Aromak, Mendiak Hurbilduz irabazi du

Akuilua - DURANGO

> Film laburrak. Mendiak Hurbilduz film labur lehiaketa irabazi zuen Ixone Aromak (1982, Durango). Lesio bat duen mutil baten istorioa aurkeztu zuen Aromak lehiaketara, *Hutsunea* izenburukoa. Bost lagunegaz landutako lan bategaz Kmovie lehiaketa ere irabazi du aurten Aromak.



Izaro Andresen 'Paradise' kanta ezagutu dugu

Kultura - MALLABIA

> Musika. Oihartzun handia izan zuen Izaro Andresek (1993, Mallabia) interneten zabaldu zuen *Paradise* kantak: 9.000 ikustaldi izan zituen hiru astean. Harre-
ra horregaz, eta kanta horrek ekarri dion
guztiagaz, oso pozik eta harrituta zegoela
azaldu zuen Andresek.



Areto futboleko derbi bat, bost urte eta gero

Kirola - DURANGALDEA

► **Derbia.** Bost urteko parentesiaren ostean, Sasikoak eta Elorrioko Buskantzak emakumezkoen areto futboleko Durangaldeko derbia jokatu zuten. Esperientzia handiko Sasikoa taldeko jokalaririk eta aurtien sorturiko Buskantz taldearen gaztetasuna lehiatu ziren, urtarrilean, Landako kiroldegian. Sasikoa zen faborittoa, eta puntu baten aldeagaz irabazi zuen partida; sei gol sartu zituzten durangarrek eta bost elorriarrek.

Areto futboleko denboraldia gustora egoteko postuan amaitu zuten ekainean Durangaldeko talde bi horiek: Sasikoak laugarren postuan, eta bosgarrenean, Buskantzak. Lehenengo itzuli bikaina osatu zuen Sasikoak, eta bigarren itzulian oso ondo ibili ziren Buskantzakoak ere.





Santa Ageda bezperan, elurra mara-mara Durangaldean

Elurrak trafiko arazoak eta argindarrean etenak eragin zituen otsail hasieran, Durangaldeko hainbat herritan

Herririk herri - DURANGALDEA

> **Elurra.** Irudi ederrak ezezik, nahasmena ere eragin zuen otsail hasieran Durangaldea hartu zuen elurrak. Batez ere errepideetan: A8 autobidean, Zornotza parean, auto ilara luzeak sortu ziren, eta Trabakua, Urkiola, Autzagane, eta Kanpazar tarteka itxita egon ziren elurragatik. Elurra kentzeko makinek gogotik egin behar izan zuten lan.

Trafiko arazoez gainera, Zornotzan hainbat orduz argindarrik barik egon zi-

ren herriko auzo batzuetan, eta batzuei udalak argindar sorgailuak erraztu zizkien arren, beste hainbatek, Ergoien auzokoek kasu, pazientzia handiz hartu behar izan zuten zerbitzua berrezartzea. Andra Mari Ikastolan, adibidez, eskolak bertan behera utzi behar izan zituzten, otsailaren 5ean.

Denboralea zela eta, Andoni Aizpuru ETBko eguraldi gizonari galdezka joan zitzaion ANBOTO, eta hark gogoratu

zuen beste negu batzuetan elur gehiago ere egin izan duela: “2010ean sei bider bajatu zen elurra itsas mailara, eta 2005ean ere zortzi elurte bota zituen”. 2015eko otsaileko elurte horren ezaugarriak, baina, “oso bereziak” izan zirela azpimarratu zuen Aizpuruk ANBOTOn: izan ere, Bizkaian eta Araban elur asko egin zuen, eta Gipuzkoa ekialdean eta Nafarroan berriz, ez, “normalean kontrakoa gertatzen denean”.



Emakumezkoen izenak ipiniko dizkiete kaleei

Herririk herri -DURANGO

> **Berdintasuna.** Durangoko Udalak aho batez onartu zuen Udal Berdintasun Kontseiluak egindako proposamena: aurrerantzean emakume izenak emango dizkiete herriko kale, plaza, parke eta eraikinei. Gaur egun Santa Ana eta Andra Maria dira emakume izena duten Durangoko espazio bakarrak. Udalak, neurriagaz, agerian jarri gura ditu “Euskal Herriaren historian emakumeek egin dituzten ekarpen garrantzitsuak”.

Udaltzainen bulego berria zabaldu dute

Herririk herri - ELORRIO

> **Udaltzaingoa.** Urte hasieran zabaldu zuten Buzkantz kaleko udaltzainen bulego berria. Otsail hasieran, prentsari erakutsi zioten bulegoa artean alkate eta alkateorde ziren Ana Otadui eta Joseba Mujikak. Zazpi udaltzainek egiten dute bertan lan, eta 06:30etik 22:00etara dago zabalik. Lehen udaletxeko beheko aldean zegoen udaltzainen bulegoa, baina leku horretan Herritarren Arretarako Zerbitzua ipini dutenez, lekualdatu egin dute.



Generoaren ikuspuntua, dantza tradizionalen

Berbaz - DURANGO

> **Dantza.** Platerueneko Berbertan zikloaren barruan hitzaldia eskaini zuen urte hasieran Oier Araolaza kazetari eta antropologoak (Eibar, 1972). Dantza tradizionala generoaren ikuspuntutik aztertzen dihardu, eta gai hori hartu zuen ahotan, kafe antzokian. Gaur egun mutilen dantzatzat dauzkagun askok bere momentuan ez zutela genero markarik nabarmendu zuen Araolazak, eta “oro har, gure dantzen historiaz informazio gutxi” dugula. ANBOTOri eskaini zion elkarriketan azpimarratu zuen emakumeak ia garai guztietan borrokatu direla gizonek espazio publikoa monopolizatzeke egin dituzten ahaleginen kontra.



Txintxaur aisialdi taldea sortu dute gazteek

Herririk herri - ZALDIBAR

> **Euskara.** Aisialdia euskaraz eskaintzeko helburuagaz sortu dute Zaldibarko dozena bat gaztek Txintxaur taldea; aisialdia "herritik eta herriarentzat" eskaintzeko asmoagaz. Herriko umeentzako eskolaz

kanpoko jarduerak euskaraz eskaintzeko eratu zuten taldea, eta, herriko guraso eta umeekin harremana egiteko, aurkezpena egin zuten martxoan.

Gizarte integrazio eta hezkuntza arloko ikasketak egindako gazteek osatzen dute taldea, eta 2014ko irailean hasi ziren lanean. Iazko San Esteban egunerako antolatutako zituzten lehen ekintzak.

Biribilgunea egiteari ezetz, Foru Aldundiak

Herririk herri - IZURTZA

> **Azpiegiturak.** Izurtzako Udalak, lehenago hainbat aldiz eta 2014ko abenduan azkenengoz, egindako eskariari erantzunez, Arbizolean biribilgunea egiteari ezetza eman zion Bizkaiko Foru Aldundiak. Artean alkate zen Luis Ballarinek "zigor politikoa" ikusi zuen ezezko haren atzean.



Euriteen kalteak, Osmata eta Gereaa auzoetan

Herririk herri - MALLABIA

> **Denboralea.** Otsail hasieran izan ziren euriteek hainbat arazo sortu zituzten Mallabiako Osmata eta Gereaa auzoetan. Zubi-tegi baserrirako bidean lur-jausia gertatu zen, eta Gerean pinu bat errepidera erori zen. Asteburu hartako haizeteak, gainera, ortu ludikoetako teilatua altxatu zuen.



Gastañazatorrerren mozorro polemikoa

Herririk herri - DURANGO

> **Nazi mozorroa.** Juan Jose Gastañazatorre Durangoko PPko zinegotzi ohia jeneral nazi mozorrotu zen Tenerifeko inauterietan, eta mozorro hark polemika sortu zuen. Tenerifeko *El Día* egunkariak zinegotziaren inguruko erreportajea egin zuen, eta bertako albistea eta argazkia aguro zabaldu ziren Durangaldean ere. Zinegotziaren mozorroagaz haserre agertu zen Durango 1936 elkarteak: "Zelan ulertu behar dugu durangarrok dibertsio mota hau, faxistek eta naziek gure herria txikitzearen eta 400 lagun hiltzearen inork ez badu barkamenik eskatu?". Gastañazatorrek azaldu zuen Tenerifeko koadrilla bat 40 urtez mozorrotu dela horrela, eta urtero gonbidatu bat izaten duela. Aurten berari egin diote gonbidapena.



errota ostaturia**

Durango erdigunean
Aterpetxea ere badugu (15€ gaua)
Kafetegia eta gimnasioa 07:00etatik 22:00etara zabalik

**GIMNASIOA
APARKALEKUA**

Intxaurrondo kalea, 54 DURANGO · Tel.: 946 216 021
errota@ibaizabalikastola.eus · www.ibaizabalikastola.eus



Iliciren fitxa helburu Amorebietan

Hilabetetako borroka izan zen fitxaketa hori Amorebieta klubarentzat

Kirola - ZORNOTZA

> **Futbola.** Denboraldi hasieratik partidu ofizialik jokatu ezinik egon zen Flavian Ilicik Amorebieta futbol taldeko 14 urteko jokalaria. Errumanian jaio zen, hango herritartasuna du, eta 4 urte zituenetik Euskal Herrian bizi da bere gurasoekin. Bizkaiko federazioan hasi, eta FIFAraino heldu zen bere fitxaren tramitazio eskaera, baina sei hilabete

itxaron behar izan zuen Amorebietak erantzuna jasotzeko. Izan ere, FIFAk adingabeen fitxaketak mugatzen dituen araudia aplikatu gura izan zion Iliciri. Araudi horren arabera, nazioarteko transferentziak jokalaria 18 urte egin dituenean bakarrik egin daitezke. Kluba mobilizatu egin zen jokalaria babesa eta elkartasuna agertzeko.



Ana Uriarte, BIOS orkestraren gidari

Kultura - ZORNOTZA

> **Musika.** Hamarkada bat darama Ana Uriartek BIOS orkestra zuzentzen. Otsailean Zornotzan, bere herrian, kontzertua eskaini zuen. Elkarrizketan azaldu zenez, Zelaietako zentroko erabilera anitzeko gela da beraien egoitza. Ikasketak amaitu ostean musikari gazteek aurrean topatzen zuten aukera ezari irtenbidea topatzeko sortu zuten BIOS orkestra. Horrela, 40 musikari gaztek bat egin zuten proiektu honekin.

Toñaren kargua, Kode Etikoaren Batzordean

Herririk herri - DURANGO

> **Epaia.** Angel Toña Jaurilaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietarako sailburu izendatu eta gutxira, besteak beste Durangoko Fundifes enpresaren konkurtso-administratzaile zenean izan zuen jardunagaz loturiko zigor baten berri eman zuen Gara egunkariak: konkurtso-administratzaile izateko 18 hilabeteko debekua ezarri zion Bizkaiko Auzitegiak sailburu berriari. Polemika politikoa ekarri zuen gaiak.



Txakurrak solte eroateko ibilbideak atundu dituzte

Herririk herri - BERRIZ

> **Araudia.** Hiruna ibilbide eta aisialdirako gune zehaztu dituzte Berrizen, txakurrak solte ibiltzeko: ur depositutik Matzagarako bidea, hilerriarako bidea eta udal ortuen ondokoa. Azken horretan egun osoz solte ibili ahal dira txakurrak, baina lehen bietan gauez bakarrik. Zakarrontzi bereziak ere ipini dituzte txakur-kakak biltzeko.



Luengo Espainiako arku-tiro txapelketan

Kirola - ZALDIBAR

> **Arku-tiro txapelketa.** Bizkaiko eta Euskadiko txapelak jantzi ostean, Euskadiko selekzioagaz Espainiako txapelketan garaipenaren bila joan orduko elkarrizketa eskaini zion Elisabeth Luengo (Durango, 1992) arku-tiralariak ANBOTORI.



Plaza eraberritua, eta biomasa galdara bat

Herririk herri - OTXANDIO

> **Inbertsioak.** Herriko plaza eraberritzea eta eskolan zein pilotalekuan biomasa bi-dezko galdara ipintzea izan dira 2015ean Otxandioko Udalak aho batez burutu dituen inbertsio nagusiak.



Minbizia dutenen eta euren senideen zaintzaz

Herririk herri - DURANGO

> **Osasuna.** Minbiziaren Aurkako Espainiako Elkarteak (AECC) antolatuta eta Bizidun nagusien elkartearen babesagaz, minbizia duten gaixoen eta haien senitartekoen zaintza psikosozialari buruzko topaketa egin zuten Durangon. Montse Llorente eta Gabriel Otalora izan ziren jardunaldietako hizlarietako bi, eta solasaldia izan zuten ANBOTO-gaz. Gaixo zein senideei bere borondatez laguntzen dabil duela 48 urtetik Llorente, eta gaixoak zaintzean baikortasunez jardutea oso garrantzitsua dela azpimarratu zuen elkarrizketan. AECCren Bizkaiko gerentea da Otalora, eta bere ustez, “maitasuna, arreta eta sentsibiltatea” dira gaixoei harrerean beste giltz batzuk: “Egoera animiko onak” eragin oso positiboa du gaixoen hobekuntzan.

Euri-ura batzeko biltegia zabaldu dute Arriandin

Herririk herri - IURRETA

> **Azpiegitura.** Euri-ura batzeko 25.000 metro kubiko dituen biltegia inauguratu zuten, Arriandin. Biltegiaren inaugurazioan azaldu zutenez, euri askoko eguntan, Arriandiko ur-araztegiak gainezka egiten zuen, eta ezin izaten zuen ur guztia garbitu. Arazo horri aurre egiteko, ekaitz andela eraiki zuten, euriteetako urak bertan bildu, eta Ibaizabal errekaratratatu bako ur kantitate gutxiago isurtzeko. Ur Patzuergoak, Aldundiak eta URAk finantzatu zuten 6,3 milioiko azpiegitura hori.



Tabira igeriketa taldeko Gonzalo Diazegaz

Kirola - DURANGO

> **Igeriketa.** Tabira igeriketa taldeari buruz berba egin zuen Gonzalo Diazek (Durango, 1980) ANBOTO-n. Taldeko txikiaren entrenatzailea da Diaz, eta zazpi urtez hondartza batean sorosle lanean jardun eta gero, salbamendu eta sorospen txapelketetan parte hartzen du orain. Hain zuzen ere, “salbamendua eta sorospena kirol gisa” sustatu gura dute Tabira taldekoek.

**EUSKARAZ ETA
BERDINTASUNEAN
BIZI EGUNEZ
EGUN!**

**berrizko
UDALA**

**BERRIZKO
UDALA**

Tel.: 946 824 036
www.berriz.org





Elkartasun tsunami bihurtu da ‘Marea laranja’

Minbiziaren aurkako elkartasun keinu itzela erakutsi zuten durangarrek, ikerketan lagundu ahal izateko

Herririk herri - DURANGO

> **Elkartasuna.** Leuzemiaz gaixotutako umeen alde elkartasun jaialdi handia ospatu zen martxoaren 15ean. ‘Marea laranja’ izendatutako mugimendua elkartasun tsunami bihurtu zen, Durango koloreztatzerara heltzeraino. 26.000 eurotik gora batu zituzten Gurutzetako ospitaleko ikerketa bi finantzatu ahal izateko. Kamiseta guztiak saldu zituzten, tonbolan 5.000 euro atera, zozketako 4.500 boletoak saldu... Baina jaialdiaren

arrakasta handiena herritarrek erakutsitako elkartasuna eta partaidetza izan ziren. “Onena jendeak zeinen ondo pasatu zuen ikustea izan zen; jendeak jaialdia bere egin zuen”, adierazi zuen Susana Del Amo antolatzaileak. Zumba maratoin ehundaka lagunek parte hartu zuten. Gainera, aurreko egunetan ikastetxeetan landu zuten gaia. Del Amogaz batera Marlen Aranguen izan zen marea sustatu zuen ama.

Susanaren semea, Ekaitz, sei urte gaz hil zen, jaialdia baino bost hilabete lehenago, eta Marlenek Alain semeagaz borrokan jarraitzen du. Jaialdian zehar, hezur-muin emaleentzako informazioa eskaini zuten berbaldiekin. Emale izateko deialdi horri garrantzia eman zioten bi amek: “Durangon egiten gabiltzanagaz norbait hiltzea saihesten gabiltza”, azaldu zuen Del Amok.



Korrika 19 Durangaldean, Euskahaldunetz beteta

Herririk herri - DURANGALDEA

> **Euskara.** Korrika 19 ospatu da aurten, Euskahaldun lemapean. Durangaldean martxoaren 23an sartu zen euskararen aldeko lasterketa; Elgetatik etorri zen Elorriora, eta herririk herri ibili ostean, arratsaldean joan zen Mallabitik Ermura. Bestalde, Zornotzatik martxoaren 29an pasatu zen. Herririk herri ekitaldi ugari egin zituzten Korrika pasa aurretik eta egunean bertan. Durangon, adibidez, flashmob bat burutu zuten ikastetxeetako ume eta gazteekin. Abadiñon, lehen aldiz, Atxarte egoitzako 30 lagunek parte hartu zuten euskararen aldeko ekimenean.

Eraso sexistaren aurrean salaketa herritarra

Herririk herri - DURANGO

> **Indarkeria matxista.** 40 Minutu Rock jaialdian eraso sexista bat egon zela informatu zuen jaialdiko antolakuntzak, eta horren aurrean, salaketa herritarra burutu zen. Neska erasotuak ipini zuen salaketa Ertzaintzan, eta kontatu zuen mutil bat ukitzen ibili zitzaioela. Erasoa salatzeke mobilizazio bateratu batera deitu zuten aste hartan Bilgune Feministak eta jaialdiko antolakuntzak, eta 80 bat lagunek parte hartu zuten. “Argi geratu zen eraso sexistaren aurkako protokoloa izatea ez dela nahikoa erasoak saihesteko. Ezinbestean, espazio honetan parte hartzen dugun guztion erantzukizuna da”.



Aiara Gomez elorriarra, Hegoafrikan hezitzaile

Berbaz - ELORRIO

> **Elkarriketa.** Irakasle lanetan Hegoafrikako zentro batera laguntzera joan zenean, bertan ikusitako bidegabekeriaren kontra borrokatu zen Aiara Gomez gazte elorriarra. Gero, bera bihurtu zen proiektu horren arduradun. “Nire bizitzako ametsa betidanik izan da boluntario izatea Afrikako lekuren baten; ikasketak amaitu osteko helburua hori argi eduki izan dut aspalditik. Hezkuntza arloan gehiago hezi nahi nuen neure burua”. Hango hezkuntza ereduaz berba egin zuen elkarriketan: “Pertsona zuri eta beltzen arteko desberdintasuna oso handia da Hegoafrikan, eta eskolekin gauza bera gertatzen da”.



Ray Fernández kubatarraren bisita

Kultura - DURANGO

> **Musika.** Durangoko Plateruena kafe antzokian egon zen Ray Fernández kubatarra, Euskal Herrian zehar egin zuen bira baten baitan. Sukaldaritza ikasi zuen gaztetan, eta denbora batez ofizio horretan

ibili arren, musika du pasio. Habanako malekoian hasi zen musika arloan murgiltzen.

Euskal herritarrekin hartu-emana dauka Fernándezek, eta hori islatu zen Platerueneko kontzertuan. Adibidez, Igor Elortza bertsolari durangarrak eta Ines Osinagak abestu zuten kubatarrazag batera.



Ebalixu euskara taldea jaio da Elorrion


Herririk herri - ELORRIO

> **Euskara.** Gazteen artean euskararen erabilera urria dela-eta, kezkatutako gazte talde bat egoerari buelta emateko asmoz hasi da lanean. Ebalixu deitzen da taldea, eta martxoan, herriko gazteen testigantzak jasotzen dituen dokumentalagaz egin zuten aurkezpen publikoa, lepo betetako Arriola aretoan. Gazteak euskararen alde egon badaudela uste du Nerea Berriozabal Ebalixuko kideak, baina egin ez. Eztabaida sortzea dute helburuetako bat: “Gura duguna da plazara atera, eta behintzat, berba egin dadila honen inguruan”.

Psikiatrikoko lursail bat, berdegune publiko

Herririk herri - ZALDIBAR

> **Hirigintza.** Psikiatrikoko lursail bat herritarrentzako berdegune bihurtzea adostu dute aurtien Zaldibarko Udalak eta Osakidetzak. Urte biko negoziazioen ostean etorri da erabakia. 4.600 metro karratuko lursaila da, eta udalak 30 urterako erabili ahaliko du, hitzarmenaren arabera.



ABADIÑO
UDALA

ABADIÑO
ELIZATEKO UDALA
www.abadiño.org
956 215 530



Txelu Angoitia

Plateruena, urte askotarako

Plateruena kulturune herritarra babestu dute 400 herritarrek eta Durangoko Udalak, hasierako zorra kitatzeko diru ekarpena eginda

Herririk herri - DURANGO

> **Kulturgintza.** Plateruena kulturune herritarra aurrera begira ipini da aurren, bere egoera ekonomikoa hobetu eta gero. Izan ere, hasierako obragatik 250.000 euroko zorra zeukan banketxeekin, eta herritarren eta udalaren laguntzari esker zorrari aurre egin dio.

Ekarpen kanpaina baten, 400 herritarrek bost urtean diruz laguntzeko konpromisoa hartu zuten, eta behar

zen diruaren erdia lortu zuen kafe antzokiak. Udalak beste erdia ipintzea onartu zuen, eta horrela, Plateruenak etorkizunerako argia ikusi zuen.

Diru ekarpena egin zuten herritarrekin batera ekitaldia egin zuten martxoan. Nerea Iriartek esan zuen “pozik eta harro” daudela; pozik Plateruena-
ren geroa ziurtatzeagatik, eta harro, dirua lortzeko era herritarrarengatik.



Trenbide eta tailer zaharrak, historiarako

Herririk herri - DURANGO

> **Hirigintza.** Durangoko trenbide eta tailer zaharrak historiara pasa dira aurren. Izan ere, azpiegitura horiek kentzen hasi ziren martxoan, eta Eusko Jaurlaritzako ordezkariak bertaratu ziren obra hasi zenean.

Duela urte bi lurperatu zuten trena, eta orain arte instalazio zaharrak kentzeko egitasmoa geratuta egon da. Geltokia ez dute bota oraindik, baina udalak ez zuen eraikin hori berrerrabiltzeko proposamena onartu.

62.000 metro karratuko espazioa libre geratu da Durango erdian, eta badirudi batez ere aisialdi gune bihurtuko dela.



Marisa Baqué: “Kafea bizitzeko modu bat da”

Akuilua - DURANGO

> **Kafea.** “Kafea ez da zaletasun bat bakarrik; bizitzeko modu bat da”. Berba horiek esan zituen elkarrizketan Marisa Baqué. La Tostadora etxeko nagusiak Espainiako kafe dastatzaileen txapela irabazi zuen, eta Munduko Txapelketan ere parte hartu zuen. Baqué familiakoa izanda, bizi osoa darama kafearen bueltan.



“Neu nintzen emakume txistulari bakarra”

Kultura - DURANGO

> **Musika.** Durangaldeko Txistularien omenaldia jaso zuen Amaia Aroma durangarrak. “Hasi nintzenean, neu nintzen emakume txistulari bakarra”, azaldu zuen elkarrizketan. Duela 50 bat urte izan zen; Bilbon, 100 bat gizon txistulariren artean jo zuen Aromak.



Ines Etxegibelen “egurra” DRTn

Kirola - DURANGO

> **Errugbia.** Ines Etxegibelen aginduetara, DRTko gizonen lehen taldeak denboraldi bikaina egin zuen 2014-2015ean. Antxon Iriondo: “Ines Etxegibelek ematen digun ‘egurra’ ez digute inoiz eman”.



Barroeta Marokon, elkartasun abenturan

Herririk herri - IURRETA

> **Abentura.** Bizikleta hartu, eta sei egunez Marokoko *Titan Desert by Garmin* lasterketan parte hartu zuen Eneko Barroeta iurretarrak, *Basamortura Eskuzabal* ekimenaren baitan. Medikamentuak eta arropa eraman zituzten.



Amatasunaz eta kirolaz goatzeko gogoia

Kirola - DURANGALDEA

> **Amatasuna.** Posible al da amatasuna eta kirola bateratzea? Hori erakusten duten lau eredu jasozituen ANBOTOK martxoan: Maider Unda borrokalaria, Oihana Azkorbebeitia eta Silvia Trigueros mendi-korrikalariak, eta Naia Alzola txirrindularia.

Undak, hasieran, ez zuen uste ama izan eta gero kirolera itzuli ahal izango zuenik. “Apurka-apurka entrenatzen hasi nintzen, eta, gauzak ondo zihoazela ikusi nuen, animatu egin nintzen txapelketetara itzultzen”. Alzolak haurdunaldian ez zuen errepidean entrenatu: “Autoak gerturatzek beldurra ematen zidan”. Azkorbebeitiak esan zuen “korrika egitera itzultzeko bikotearen babesa izatea nahitaezkoa” dela. Trigueros, oster, seme bi eduki eta gero hasi zen korrika, ez zuelako ibiltzeko astirik.

Gernikatik Durangora, Zornotzan sartu barik

Herririk herri - ZORNOTZA

> **Garraioa.** Errepide berria inauguratu zuten martxoan, Gernikatik Durangora zuzenean, Zornotzako herrigunetik sartu barik, joan ahal izateko. Ibilbide berriak Betarragane eremura eramaten du trafikoa, eta biribilgune bat hartuta, Durangorako norabidea hartzen da. Obrak ia 2 milioi euroko inbertsioa eduki zuen, eta adar berria egunero 1.500 ibilgailuk erabiltzea aurreikusi zuten. Bidaia errazteaz gain, Zornotzako herriguneko trafikoa arintzeko ere balio izan du.



Politikoki zuzena ez zen erakusketa Durangon

Kultura - DURANGO

> **Artea.** Jose Angel Uberuaga artista gernikarrak *The Black Dhalia* erakusketa aurkeztu zuen Durangoko Arte eta Historia museoan. Emakumeagaz eta matxi-moagaz lotutako obra esplizitua zen: “Jendea artelan eder eta politikoki zuzenera dago ohituta: objektu-arte esaten zaio horri. Egia esan, leku askotan harritu dira nire lanagaz”.





Astepen txarto dauden etxeak botako ditu udalak

Astepeko hamaika familiaren etxeak botatzea onartu dute aurten, eta azpiegitura publikoak egingo dituzte bertan

Herririk herri - ZORNOTZA

> **Hirigintza.** Iaz azaleratu zen Astepe auzoko etheen arazoa. Hamaika familiaren aterpe ziren etxeetan termitak zeudela ondorioztatu zuen udalak txosten baten, eta bizilagunei etxetik irteteko agindua eman zien. Hori bai, behin-behineko etxea topatzen lagundu zien udalak. Egoera zelan konpondu aztertzen ibili dira aurten, eta azkenean, topatu dute soluzioa: udalak etxeak erosiiko dizkie bizilagunei, gero eraikinak bota, eta ber-

tan aparkaleku publiko bat egiteko. Hori ahalbidetzeko, 20106rako udal aurrekontuan 640.000 euroko diru partida aurreikusi du udalak. Etxebizitza pribatuak diren heinean, jabeek zegokien konponketen kargu egitea, baina askok ez dute horretarako baliabiderik. Testuinguru hori ikusita, udalakeskuhartzea erabakizuen; etxeak tasatu eta desjabetu zituen. Horrela azaldu zuen Amagoia Madariaga zinego-

tziak: “Bide hori erabilita, babeseko etxebizitza bat eskuratzeko interesa duten jabeek lehentasuna izatea ahalbidetzen du legeak. Ez dute zerrendarik itxaron beharko”. Etxeak bota ostean, hutsik geratuko da Astepe auzoko erdigunean dagoen eremua. Seguruenik, espazio hori aparkaleku bat egiteko eta gaur egun bertan dagoen umeendako parkea handitzeko erabiliko dute.



Mavi García, txirrindulari bezala proba egiten

Kirola - DURANGALDEA

> **Txirrindularitza.** “Oraingoz, apurka-apurka esperientzia hartzea da nire helburua”. Adierazpen hori egin zuen Mavi García apirilean, Bizkaia-Durango taldeagaz hasi berritan. Izan ere, aurretik, atletismoan, duatloian eta triatloian ibilitakoa zen Balearretako kirolaria, baina txirrindularitza ez. “Azken urtean bizikletari ere gustu handia hartu diot, taldean oso ondo pasatzen dut”.

“Minbiziaren inguruan ikertzea da nire asmoa”

Berbaz - DURANGO

> **Medikuntza.** EHUKo Medikuntza fakultatean ikasi eta gero, Gillen Oarbeaskoa durangarra bigarren gelditu zen barruko mediku egoiliar izateko MIR azterketan. Proban 12.199 ikaslek parte hartu zuten, eta Oarbeaskoak 191,33 puntu eskuratu zituen. Etorkizunean ikerkuntzan jardun gura du: “Minbiziaren inguruan ikertzea da nire helburua”. Euskaraz ikasi zuen bere karrerarako zati handi bat. “Hizkuntza-aren argudioa ezin da baztertzaileria izan”.



“Goienkale hiltzen dabil; zerbait egin behar dugu”

Herririk herri - DURANGO

> **Ostalaritza.** Durangoko Alde Zaharreko 21 tabernek indarrak batzea erabaki dute aurten, eta Sapuherri sustapen elkarteak sortu dute. “Goienkale hiltzen dabil, eta zerbait egin behar dugu”; azaldu zuten elkarriketan Kalekantoitako tabernako Iker Arizmendiarrak, Anboto jatetxeko Amagoia Martinezek eta Gure Kabiyaiko Oihane Alakanok eta Iñigo Garridok. Jai giroa asko bajatu eta zabaldu dela uste dute: “Lehen jende guztia Goienkalera etortzen zen, eta orain beste auzo batzuetan geratzen da”, zioen Garridok. Hala ere, badaukate gorantza egiteko esperantza: “Pintxo-poteagaz egiaztatu zen zerbait eskaintzen duzunean jendeak erantzun egiten duela”, esan zuen Arizmendiarrak.





Lehior Elorriaga

Erabakitze eskubidearen aldeko jostunak

Herririk herri - DURANGALDEA

> **Gure esku dago.** Iaz Durango eta Iruña giza kate batez lotu ostean, aurten, beste urrats bat eman du erabakitze eskubidearen aldeko Gure Esku Dago mugimenduak. Hiriburuetako estadioetan ekitaldi jendetsuak egin ziren ekainean, berriro ere eskubide horren aldeko aldarria lau haizetara zabaltu guran.

Aurretik, oster, herriak busti zituen dinamika. Apirilean, Josketa Eguna antolatu zuten herririk herri. Lagun talde bakoitzaren borondate eta nahia oihal batean idatzi, eta oihal horiek guztiak josteko aprobetxatu zuten ekitaldietan. Zelan ez, ekintza horien bueltan ez zen falta izan jai girorik.

Gero, hiriburuetako ekitaldien aurretik, berriro giza kateak burutu zituzten guztien artean jositako oihal horiek tresna lez hartuta.

Abade-etxea konpondu guran, udal zerbitzurako

Herririk herri - ABADIÑO

> **Obrak.** Abadiñoko Abade-etxea konponduko du udalak, udaleko hainbat zerbitzu bertara eramateko. Udal aurrekontuan hartutako erabakia izan da, 290.000 euroko kostuagaz.



Mallabiko izendegia eguneratu dute

Herririk herri - MALLABIA

> **Toponimia.** Mallabiko kaleen, auzoen, baserrien eta etxeen izendegia eguneratu eta ofizializatu du aurten udalak. Herritarrek iritzia eman, eta proposamenak egiteko aukera izan dute.



Mañariko historia liburua, herritarren ahotik sortua

Herririk herri - MAÑARIA

> **Historia.** Udalak eta Gerediaga elkarteak sustatuta, herriko historiari buruzko liburua landu du Txelu Angoitia, *Mañaria*, *Harrizko Herria* izenagaz. 40tik gora mañariarren bizipenak jasotzen ditu liburua, eta argazki ugari ere bai.

Erregionaleko talde zornotzarrak, gora

Kirola - ZORNOTZA

> **Futbola.** Aurtengo udebarrian Erregionaleko Lehen Mailarako igoera lortu dute Zorrontzako eta Amorebieta B taldeek. Ondorioz, Zorrontzako bere historian lehenengoz dabil maila horretan jokatzeko. Amorebieta B taldea, bestalde, bigarren urtez segidan igo da mailaz.





hemen euskara bizi daiteke

Euskara ikasi nahi baduzu, gurean, **GAU ETA EGUN** euskararen murgilduta, **euskaraz hitz egiten eta euskaraz bizitzen** ikasiko duzu. Etxean bezala egongo zara.

Zornotzako / Barnetegia BIZI EUSKARAZ

Zornotzako Barnetegia Larrea auzoa, z/g. Amorebieta-Etxano

Tel.: 94 630 83 04 / 609 367 570
info@zornotzakobarnetegia.eus
zornotzakobarnetegia.eus

IKASTAROAK URTE GUZTIAN MAILA GUZTIAN

Bikam



Herriko tabernak ixtea agindu dute

Herririk herri - DURANGALDEA

> **Herriko tabernen auzia.** Herriko tabernen auziaren harira, Auzitegi Nazionalak taberna horiek enbargatzea agindu zuen. Beranduago, Auzitegi Gorenak epai hori berretsi zuen. Auzian zeuden 111 tabernetatik 107ri ezarri dio zigorra. Tartean daude, Durangoko Intxaurre, Elorrioko Portalekua, Zornotzako Belatzikieta, Zaldibarko Castet, Mallabiko Izar Gorri eta Otxandioko Kementsu.

Bestalde, hainbat auzipeturi zigorra murriztu die Gorenak, bere sasoian Auzitegi Nazionalak egin zuen moduan. Enrike Alaña durangarra ere urtebete eta hiru hilabeteko kartzela zigorrera zigortu zuen, baina denbora hori bete zuen espetxean behin-behinean zegoe-la. Epaitegien erabaki honen aurrean protesta eta mobilizazio ugari egin dituzte Durangalde guztian.



Rodriguez, Zaldibarko errektortaria

Akuilua - ZALDIBAR

> **Zezenak.** Sergio Rodriguez gazte zaldibartarra errektortaria da. Orain zortzi bat urte zaletu zen, eta, batez ere, azken sei urteetan ibili da mundu horretan murgilduta. Deban edo Zeberion egiten ditu entrenamendu saioak, Durangaldean ez baitu horretarako aukera handirik. Edozelan ere, Valladolidera (Espainia) joatea da bere helburua, Valladolideko baita errektortarien arloan dagoen plazarik garrantzitsuenak.



Mugarri Eguna Alpino Tabira elkartegaz

Herririk herri - DURANGO

> **Irteera.** Apirilean Durangoko mugarriak ezagutzera joateko irteera antolatu zuen Alpino Tabira mendi taldeak. Duela

hogei bat urte hasi ziren antolatzen Mugarri Eguna, udalaren ekimenez, eta ardura Alpinok hartu zuenetik hamazazpi edizio pasa dira. Jose Ramon Arrizabalaga Alpinoko kideak gogoratu du Durangok duen hedadura ezagutaraztea izan zela sortzaileen helburua.



BTTko ibilbideak diseinatu dituzte

Herririk herri - DURANGALDEA

> **Kirola.** BTT edo mendi bizikleta praktikatzeko Durangaldeko ibilbideak diseinatu daude. Amankomunazgoak bultzatu du egitasmoa, Guillermo Ruiz de Erentxunek egin du proiektua. Ibilbideak bertako zaleentzat zein turistentzat eginak daudela dio Ruiz de Erentxunek. Bestalde, BTT zentroa 2016an zabaltzea gura dute.



Itsasotik etorritako istorioak irakurtzen

Kultura - DURANGO

> **Irakurketa.** Itsasoaren inguruko testuak irakurri zituzten *Hitzez eta ahotsez* zikloaren baitako irakurraldi masiboan. Plate-ruenean izan zen, 6 orduko iraupena eduki zuen, eta 225 lagunetik gora ibili ziren jendaurrean irakurtzen.



‘Jende desagokia’, Zabarteren bigarrena

Kultura - ZALDIBAR

> **Literatura.** Gaizka Zabartek bere bigarren nobela argitaratu du aurten, *Jende desagokia* izenekoa. Protagonisten orainaldia, iragana, eta euren arteko hartuemanak daude istorioaren mamian.



“Aisialdiko baratzeak oso inportanteak dira”

▣ **Berbaz** - GARAI

> **Nekazaritza.** Jakoba Errekondo agromomo eta paisajista ezagunak berbaldia eskaini zuen Garain, Landare eta Lorezaintza Azokaren harira. Gainera, herriarren galderei erantzun zien, eta *Bizi baratzea* izeneko liburua ere aurkeztu zuen. ANBOTOri elkarrizketa eskaini zion: “Aisialdiko baratzeak oso inportanteak dira, eta udal gehiagok sortu beharko lituzkete”. Horretaz gainera, Bizkaian eta Gipuzkoan lur publikoekin arazoa dagoe-la adierazi zuen.



Pertsona nagusi batzuei iruzurra egin diete

▣ **Herririk herri** - DURANGALDEA

> **Salmentak.** Hasieran oparia zirudiena, dirutza balio izan duen erosketa bihurtu zitzaien. Alba cultural siglo XXI enpresako saltzaileek pertsona nagusiei iruzur egin zieten salatu zuten herritar batzuek kontsumitzaileen bulegoan. Burko bat oparitan jasotzen hasi, eta 2.000 eurorainoko gastua egin zuten konturatu orduko. Teknikariek azaldu zuten lau salaketa ipini zirela, baina kasu gehiago egon zirela.



Durangaldeko Bizikleta Eskola sortu dute

▣ **Kirola** - DURANGALDEA

> **Txirrindularitza.** Durangaldeko lau txirrindulari elkartek Bizikleta Eskola sortu dute aurten, harrobia sustatzeko helburuz. Durango, Elorrio, Iurreta eta Abadiñoko eskolak izan dira proiektua martxan ipini dutenak. 7 eta 14 urte arteko 35 umegaz hasi dute ibilbidea. www.durangaldekobizikletaeskola.com webgunea ere zabaldu dute.





EAJ izan da alderdi bozkatuena udal hauteskundeetan

Durangon, Iurretan, Berrizen, Mallabian eta Zornotzan jeltzaleena izan zen zerrendarik bozkatuena

Herririk herri - DURANGALDEA

> **Hauteskundeak.** Maiatzean egindako udal hauteskundeetan EAJ izan zen alderdirik bozkatuena Durangaldean; 14.787 boto lortu zituen. Botoa eman zuten herritarren %39k jeltzaleen alde egin zuen. EH Bildu gertu izan zuen, 13.763 botogaz (%36). Durangon, Iurretan, Berrizen, Mallabian eta Zornotzan EAJ-

ren izan zen zerrendarik bozkatuena. Bestalde, Podemos alderditik irtendako plataformak lehenengoz aurkeztu ziren udal hauteskundeetara eta Durangon, Elorrion eta Zornotzan ordezkariak lortu zituzten. Alderdi Popularrak ez zituen emaitza onak lortu eta galdu egin zituen Zaldibarren, Iurretan eta Elorrion zi-

tuen ordezkariak. PSE-EEk ere, oro har, hainbat ordezkari galdu zituen. Udal batzuetan boto gutxi batzuek erabaki zituzten emaitzak. Mañarian, boto biren aldeagaz ziurtatu zuen alkateza EH Bilduk. Mallabian, aldiz, hiru botoko aldeari esker, EAJko Igor Agirre da alkate.

Kirola eta elkartasuna Sahararen alde batuta

Kirola - DURANGO

> **Elkartasun ekintza.** Durango Rugby Taldeak kirola eta elkartasuna batu ditu aurreko gaztetxo bideratutako jardunaldietan; Rio de Oro elkartearentzat material bilketa egin dute. Elkarthe horrek Tindufen bizi diren eta urritasunen bat duten gazte saharauiak hona ekartzen ditu udan.



Lokal bat okupatu, eta Ziztada Gunea sortu dute

Herririk herri - ZORNOTZA

> **Okupazioa.** Zornotzako hainbat lagunek Luis Urrengoetxea kaleko lokal bat okupatu dute. Hamar urtetik gora zeramatzan hutsik. Okupatzaileek lokal hutsari erabilerak publikoa ematea dute helburu: “Ezin dugu herrian hainbeste lokal huts eduki. Gune aske bat izango da, mundu guztiari zabalik egongo dena”, adierazi zuten.

Zure laguntzarekin durangar euskaldun eta aurrerazaleak hezten jarraituko dugu

ibaizabal
IKASTOLA

Intxaurren, 54 · Tel.: 946 215 877
www.ibaizabalikastola.org

KURUTZIA
IKASTOLA

Galtzaretan, 13 · Tel.: 946 200 822
www.kurutziagaikastola.net

dagigun!

IBIALDIA 2016
DURANGO

Maiatzaren 29an Ibilaldia, Durangon



Musika eskola berrirako proiektua aukeratu dute

Herririk herri - ZORNOTZA

> **Musika eskola.** Javier de las Heras Solé arkitekto katalanak aurkeztu duen proiektua hautatu dute Zubiaur Musika Eskola berria eraikitzeko, Zornotzako Udalak deitu duen ideia lehiaketan: “Ilusio handia egiten dit Zornotzara lan hau gauzatzeraz etorri ahal izateak”, azaldu du arkitektoak. Hiru solairuko eraikina izango da Musika Eskola berriarena, denera mila metro koadroko azalerakoa. Arkitektoak azaldu duenez, “beheko solairua Musika Eskolaren eta kalearen loturarako espazioa izango da; bertan egongo dira liburutegia eta administrazioa, eta baita, Zelaieta zentroaren eta eraikin berriaren arteko patio bat ere”. Bigarren solairuan atonduko dute areto nagusia, eta espazio zabal eta argitsuetan kokatuko dituzte Musika Eskolako 450 ikasle hartuko dituzten ikasgelak.



AHTaren aurka mendi martxa eta ekitaldia

Herririk herri - ATXONDO

> **Azpiegiturak.** Atxondon AHTaren kontrako mendi martxa deitu zuten hainbat eragilek. Bertan, besteak beste AHTak herrian izango lukeen eragina ezagutaraztea izan zuten helburu.

Arbizolea industrigunea urbanizatu dute

Herririk herri - IZURTZA

> **Obrak.** Enpresek ordaindu eta udalak aurrera eraman ditu Arbizoleako lanak. Bidegorri sarea luzatu, bide ingurua asfaltatu, eta ingurua atondu dute hainbat hile iraun duten lanetan.



“Marokoren krudelkeriari makillajea kentzen diogu”

Herririk herri - ELORRIO

> **Elkarriketa.** Equipo Mediatico taldeak Mendebaldeko Saharako okupazio agintariek ezarritako blokeo informatiboa haustea du helburu. Bertako kide Ahmed Ettanjik-ek hitzaldia eskaini zuen Eloorrion, eta bere bizipenak kontatu zituen.

Ezgaitasun eguna egin zuten Durangaldean

Herririk herri - IURRETA

> **Jaia.** Durangaldeko Ezgaitasun Eguna antolatu zuten Geu Be, ONCE, Rio de Oro eta ASEBI elkarteek, Iurretako udalagaz batera. Ezgaitasunera hurbiltzeko gonbita luzatu zuten. “Garrantzitsua da heziketan eta sentsibilizazioan lan egitea mundu hobe bat lortzeko”, esan zuten Geu Be-koek.



45 urte baino gehiago euskal basoen zerbitzura



Pinuarekin egin daitekeen paperik onena!

Jasangarritasuna bermatzen dugu honako ziurtagiri hauen bitartez:





Durango ikerlari gazteen erakusleihu izan da Ikergazte kongresuagaz

200 bat ikerlarik parte hartu zuten Landako Guneko aurkezpenetan

Herririk herri - DURANGO

Kongresua Gero eta gehiago dira euren ikerketak euskaraz idazten dituzten gazteak. Maiatzean ikerlari horien erakusleihu bihurtu zen Durango, UEU Udako Euskal Unibertsitateak antolatutako Ikergazte kongresuan. Guztira, 200 bat ikerlarik parte hartu zuten Landako Guneko aurkezpenetan. Ainhua Diez 23 urteko durangarra izan zen parte

hartu zuenetako bat. Gizarte Langintza Ikasketa eta Familekin Esku-hartzea masterra ikasi ostean, langabeziak familiengan daukan eragina aztertzen dihardu, doktoretza tesian. Bere ustez, Ikergazte “berezia” izan zen: “Ikerketan gabiltzan euskaldunoi ahotsa ematen digu. Gure lanak geurea den hizkuntzan ezagutarazteko aukera ematen digu”.

Gerra Zibileko gudari baten bizipenak liburuan

Berbaz - ZORNOTZA

Liburua Gerra Zibilean Etxano-Aramotz arteko frontean borrokatu zuen Jaime Urkijo gudari erreteriarak. Une horietako zein osteko bere bizipenak ikertu, eta *Diario de un gudari en el frente vasco* liburuan jaso ditu Alberto J. Sampedro zornotzarak, Jose Angel Fernández eta Juan Ramon Garaigaz batera. Liburuak “Urkijok bizitakoak kontatzen ditu. Ikusi eta egindakoak”. Horrez gain, Sampedrok azaldu duenez, “beste asko bezala ahaztuta geratu den Zornotzako frontea gogora ekartzeko modua ere izan da”.



Zornotza S.T.: denboraldi zoragarri baten amaiera

Kirola - ZORNOTZA

Saskibaloia Zornotza Saskibaloia Taldeak Urrezko Adecco Ligara pasatzeko igoera fasea jokatu zuen maiatzean. Xuben Cambados talde galiziarra kanporatu ostean, Guadalajara arerio gogorregia izan zen bigarren kanporaketan (0-3). Edozelan ere, jokalaria zein zaleek ez dute berehalakoan ahaztuko bizitako giroa.



Inma Berriozabal aske, zigorra bete ostean

Herririk herri - ELORRIO

Espetxe politika Inma Berriozabal 18/98 auzian epaitu zuten, eta, zazpi urte eta sei hileko kartzela zigorra beteta, maiatzean irten zen A Lamako (Galizia) espetxetik. Gaixotasun kronikoak ditu eta horiek tratatzeko etxean egon beharko zukeela eskatu izan dutesenide eta hainbat herritarrek.



Hamar urte egin ditu Berrizko Bertso eskolak

Herririk herri - BERRIZ

Bertsolaritza Aurten hamar urte bete dira Berrizko Bertso Eskola berreskuratu zutenetik. Miren Amuriza da irakasle. Gehienak berriztarrak dira eta baina gauraitarrak eta mallabitarrak ere badaude.



Athletici buruz euskaraz, geuria.info atarian

Kirola - DURANGALDEA

Webgunea Eskualdeko hiru lagunek Athletic futbol taldeari buruzko informazioa euskaraz eskaintzen duen *geuria.info* webgunea aurkeztu zuten, Tokikom elkar-teagaz hitzarmena sinatuta. Athleticen gaurkotasuna euskaraz jorratzen dute.



DS AUTOMOBILES

SPIRIT OF
AVANT-GARDE

UTZI INSPIRAZIOAK
EROAN ZAITZAN.

DS 4 Berria



DS 4 Berrian ihes egitea orekara bidaia egitea da, edertasunera, diseinura.
Potentziaren eta dotoreziaren uztarketa perfektua deskubritzea da,
eta detaile txikiez gozatzen ikastea. Zure desioetan inspiratutako
DS 4 Berrian gidatzeko benetako plazerera egingo duzu ihes.
Ezagutu ezazu www.driveDS.es-en.

DS-k TOTAL du gurago

www.driveDS.es

BATAZBESTEKO KONTSUMOA (L/100KM): 3,7TIK 5,9RA. GAS ISURIAK (G/KM): 97TIK 138RA

ZAER MOTOR, S.A.

Padureta industrialdea, 1 · 48215 Iurreta (Bizkaia) · Tfno zkia: 94 620 02 82



Koalizioak Durango eta Abadiñon, “egonkortasun” bila

Durangon EAJk eta PSE-EEk eta Abadiñon AIk eta EAJk akordioak sinatu dituzte, udala elkarrekin kudeatzeko

✚ **Herririk herri** - DURANGALDEA

➤ **Udal kudeaketa.** Maiatzeko hauteskundeetan EAJ izan zen zerrendarik bozkatuena Durangon, eta Abadiñoko Independienteak, Abadiñon. Bietako batek ere ez zuen gehiengo osorik lortu. Handik hilabetera, Durangon EAJk eta PSE-EEk akordioa sinatu zuten udala elkarrekin gestionatzeko. Gauza bera iragarri zuten AIk eta EAJk Abadiñon. Kasu bietan herri administrazioari “egonkortasuna” emateko akordioak zirela adierazi zuten.

Akordioarekin, Abadiñoko Gobernu Taldeak gehiengo osoa dauka udalbatzarrean: AIk sei zinegotzi ditu eta EAJk bi; zortzi bozka dituzte EH Bilduren bosten aurrean. Durangon, aldiz, akordioak ez du gehiengo osorik bermatu: koalizioak hamar boto batzen ditu udalbatzarrean, eta oposizioak hamaika ditu.

Durangon hainbat gairen inguruan ados jarri ziren jeltzaleak eta sozialistak. Esaterako, Gizarte Ekintzaren eta

enpleguaren arloetan aurrekontua %20 handitzeko konpromisoa hartu zuten. Berdintasunerako diru-atala ere %20 igotzea hitzartu zuten, Andragunea handitzeko. Durangon hutsik dauden 1.500 etxeen kasuan, horiek alokairuan erabiltzeko programak sustatzea adostu zuten, eta etxe kaleratzea gertatu aurretik kasu horiek identifikatu eta sahiesteko partida bat ere gordeko dutela jakinarazi zuten akordioa sinatu zutenean.



Tranpak baso bideetan ziklistei kalte egiteko

✚ **Herririk herri** - DURANGO

➤ **Mendi bizikleta.** Ekainean urteroko mendi bizikleta martxa antolatzen ziharduen Durangoko Sapubike taldeak, ibilbidea begitatzten ari zirela apropos jarritako tranpak aurkitu zituztenean. Bidean nahita jarritako harriak eta enborrak aurkitu zituztela salatu zuten, eta ez zela lehen aldia. Mendi bideetan jarritako trabak “oso arriskutsuak” direla ohartarazi, eta 2014an izandako tranpa bat aipatu zuten bereziki: pinu biren artean alanbre bat jarri zuten metro bateko altueran, eta, horren eraginez, txirrindulari batek istripua izan zuen; “zorionez, ez zen larri zauritu, bizikletak kalte handiak izan arren”.

Bateginez desegin dute, 22 urteko bidearen ostean

✚ **Berbaz** - DURANGO

➤ **Kooperazioa.** Bateginez Gobernu Kanpoko Erakundea desagertu egin da aurren, 22 urteko ibilbidearen ostean. Denbora honetan guztian, beharra dutenei laguntzeko hamaika proiektu (hezkuntza, osasuna...) garatu ditu Pochutan —Guatemala—, hango elkarte batekin elkarlanean. Baina lanak bertatik bertara ikusteko hara egindako bidaia batean hango elkartearen jardunak desconfianza eragin zien, Bateginezeko Rakel Calvok azaldu duenez: “Oso erakunde piramidala aurkitu genuen. Bi-hiru lagunek Gobernu Kanpoko Erakundearen zuzendaritza hartu zuten. Konfiantza galdu genuen”.



20 urteko Niewiadona onena Emakumeen Biran

✚ **Kirola** - IURRETA

➤ **Txirrindularitza.** Katarzyna Niewiadoma poloniar gazteak irabazi du aurtengo Emakumeen Bira. Bera baino esperientzia handiagoko txirrindularien aurrean maila paregabea erakutsi eta merezita jantzi zuen elastiko horia azken etaparen amaieran.

2016ra begira UCI-k *Women World Tour* egutegia sortu du eta ez dute Emakumeen Bira sartu. Beraz, aurren nazioarteko egutegian jarraituko du, baina maila gorena baino koska bat beherago. Hala ere, antolatzaileek adierazi dutenez 2017an Emakumeen Bira WWT-an sartzeko prest dago UCI. Horretarako telebista bidezko emankizuna bermatu behar dute.



Iurretakotik Ezkurdira igaro dira emakumeak

Kirola - DURANGALDEA

> **Futbola.** Iurretako futbol taldeko zuzendaritzaren aldetik jasotzen zuten tratua ez zeuden ados, eta Iurretako taldea osatzen zuten emakumeek proiektu berri bat hasi dute aurtengo denboraldian Ezkurdi klubagaz: “Ezkurditik interes handia eta gauzak ondo egiteko gogoia ikusten genuen” adierazi zuten Nora Ordoñez, Iera Gerrikabeitia eta Nerea Gomez futbol jokalariek. Iurretakon, aldiz, “babes falta” sumatu dute zuzendaritzaren partetik: “Ez dugu egoerari buelta emateko borondaterik sentitu”: Ezkurdikoa apustu berria da, eta “ez dakigu zelan irtengo den, baina gauzak ondo egiteko ikusi dugun gogo horrek norberari ere ilusioa pizten dio”, azaldu zuten.

Erabilera anitzeko gune berria dute Mallabian

Herririk herri - MALLABIA

> **Inaugurazioa.** Elizaldea plazan, elizara atxikitako eraikinean erabilera anitzeko gunea inauguratu zuten Mallabian. Kontzejuzarra izena ipini diote gune berriari, sasoi batean espazio horretan udaletxe zaharra zegoelako. Urtero antolatzen den Kultur Hamabostaldian antolatutako hitzordu bat baliatu zuten horretarako: Jakoba Errekondoren berbaldia, hain zuzen. Jendez lepo bete zen Kontzejuzarra.



Jon Bragado, George Lucasen esanetara

Akuilua - ZORNOTZA

> **Zinemagintza.** Filmetako efektu berezien magiak txundituta utzi zuen Jon Bragado, zazpi urteagaz Jurassic Park pelikula ikusi zuenean. Gaur egun kamera birtual eta integrazio teknikaria da Vancouverren (Canada) eta George Lucasen enpresa batean “ilusioa fabrikatzen” dihardu. *Wrath of Titans* (Ira de Titanes) izan zen efektu bereziak lantzen aritu zen lehen filma. Guy Ritchie eta Alfonso Cuarón lako zuzendariekin lan egin du.

ELORRIO

Urte osoko turismoa





Elorrioko Udala
 Herriko Plaza, 48230 Elorrio (Bizkaia)
 Tel.: 946 582 712
www.elorrio.net



Elorrioko udala






Lehior Elorriaga

Ibilaldia antolatzeke, ‘Dagigun!’

Kirola - DURANGO

Ikastola. Bizkaiko ikastolen aldeko Ibilaldia Durangon ospatuko da 2016an, eta Kurutziaga eta Ibaizabal ikastolak burubelarri dabilta antolaketa lanean. Ekainean Ibilaldiko logoa eta leloa aurkeztu zituzten. *Dagigun!* izango da goiburua. Idoia Elorriaga arroparen batzordeko kidea da, eta leloa indar askokoa eta aktibatzailea iruditzen zaio: “Guk egin dezagun ekintza, denon artean, mugimenduan”.

Abenduan, motorrak berotzen joateko, Durangoko Azokarekin bat eginez,

mosaiko erraldoia antolatu zuten Lاندako Gunean. 400 lagunetik gora bildu zen Ibilaldiak antolatzen duen lehenengo ekitaldi horretan.

Maiatzean ospatuko den Ibilaldiari buruzko informazioa www.ibilaldia.eus webgunean aurki daiteke. Bestalde, Barrrenkalen jarri dute Ibilaldiko denda. Eguaztenetik barikura goizez zein arratsalde zabalik, eta zapatuetan goizez. Boluntarioen laguntza dute dendan txandak egiteko eta, orokorrean, gurasoen erantzuna ona izan dela diote.

Fraile presoak jasandako “tratu ankerra” salatu dute

Kirola - DURANGO

Sakabanaketa. Gorka Fraile preso politikodurangarrari minbizia aurkitu, eta ebakuntza egin zioten Badajozeko ospitalean. Gaixorik egon arren, ez dute Euskal Herriara ekarriko; senideek egindako eskaerari ezetz esan zion Espetxe Zaintzarako Epaitegiak. Durangon eskainitako prentsaurrekoan, Jaiki Hadi mediku elkarteko Esti Gorostiagak Fraile ekarri eta Osakidetzan artatzea eskubide bat dela gogoratu zuen. Ebakuntzaren aurretik, Frailek polizia-ren partetik “tratu ankerra” jaso zuela ere salatu zuen Nerea Makuso koinatak.



Batak besteari bezeroak lortzen laguntzen

Kirola - DURANGO

Enpresa. Torrealday aholkularitzak BNI Kooperatiba Bizkaia proiektua aurkeztu zuen. Mota horretako Euskal Herriko seigarren proiektua da. Askotariko arloetan dabil-tzan enpresak elkartu —ezin daitezke arlo bereko bi egon— eta elkarrekin erreferentzia sareak sortu eta sendotzea du helburu, horrela bezero berriak lortzeko.



Txinan futbola irakasten dabil Jon Diaz de Cerio

Kirola - DURANGO

Futbola. Jon Diaz Cerio durangarra Txinan bizi da, eta hango ikastetxe bateko ikasleei futboleko jokatzen irakasten die. Europako estatuetako eta Txinako futbolaren artean oraindik “alde izugarria” da goela azaldu zuen, baina apurka-apurka “oinarritzko nozioak ikasten” ari direla.



“Sukaldari, neure burua ez dut beste ezertan ikusten”

Akuilua - DURANGO

Sukaldaritza. Ander Diez 22 urteko durangarrak Basque Culinary Centerren ikasi du. Orain, Ordiziako Oiangui jate-txean dihardu, beste lau ikaskideguz. Koktelgintza ere gustatzen zaio.



Vulkano futbol taldeak 50 urte egin ditu Otxandion

Kirola - OTXANDIO

Futbola. Vulkano futbol taldeak egun osoko jaia ospatu zuen ekainean, 50. urteurrena ospatzeko. Ondoren, santamānetan, Vulkano eta Athleticen beterranoek lagunartekoa jokatu zuten. Gainera, aurtēn Maila Gorenera igo dira.



Ametxorbe mendiaren jabetza eztabaidagai

Herririk herri - GARAI

> **Lursaila.** Garaiko Udalak Berrizko Ametxorbe mendiko lursailak bereganatzen saiatzen ari da. Lurak muga egiten du Garaigaz, eta udalak bereganatzeko eskubidea duela uste du, erabilera publikoa emateko. Baina lur horiek Berrizko Aitor Biritxinagak erosi zituen 2014an. Horregatik, epaitegiek esango dute nor geratuko den lurrekin. Udaleko Herriko Taldearen ustez, lur hori “Garai eta inguruko udalerrietako auzotarrentzat aberastasun garrantzitsua da”. EAJk ez du berdinean uste: “Garaiko abeltzainei lagundu behar zaie, baina laguntza hori ezin da beste batzuen bizkar izan”. Biritxinagak salatu zuenez, “beste baso batzuk ere egongo dira salgai, niri kentzen hasi barik”.

Udalagaz tratua euskaraz izatearen aldeko dinamika

Herririk herri - DURANGO

> **Euskara.** Euskal Herrian Euskarazek sustatuta, udalagaz tratua euskaraz izatea eskatu dute 500dik gora lagunek. EHE-ren esanetan, herritarrek euskaraz berba egiteko ezintasunak topatzen dituzte udal zerbitzuetakoko beharginekin. Horregatik, *Udalak eta biok euskaraz* dinamikagaz jarraitu dute aurren. Herritar, elkarte eta ikastetxeekin batu dira eta jasotako eskaerak udaletxean entregatu dituzte.



Hiru txirrindulari ohi, txirrindularitzari buruz

Kirola - MALLABIA

> **Txirrindularitza.** Mikel Pradera eta Gorka Arrizabalaga mallabiarrak dira eta Igor Astarloa ermuarra. Txirrindulari ohiak eta lagunak dira. ANBOTOK hirurak elkartu zituen atzoko eta gaurko kontuei buruz berba egiteko. Beren sasoiaren zaleak diren handiagoei zegoela uste dute. Sarritan gurasoek arriskutsuegi ikusten dute errepidea, baina Praderaren ustez gaztetatik hasiera komeni da, errepidea irakurtzen ikasten delako.



MALLABIKO UDALA
Tel.: 943 171 461
www.mallabia.eus





Durangaldeko musulmanekin Ramadanaz berbetan

Durangoko meskitara hurreratu da ANBOTO, musulmanentzat hain garrantzitsua den garaiaz gehiago ikasteko

Herririk herri - DURANGO

> Ramadan. “Gauza txarretatik urrun-tzen eta onetara hurreratzen irakasten dizun eskola da”. Horrela bizi du ramadana Mohamed Amine Nafiai Durangoko Elkarte Kultural Islamikoko presidenteak. Komunitate musulmaneko hainbat kidegaz elkartu zen uztailean ANBOTO, ramadanari eta islamari buruz berba egiteko. Ramadanean, egunez baraualdia izaten dutela kontatu zuten; ez dute jaten, ez edaten, eta ez dute sexu

harremanik edukitzen. Baldintza gogor-rak dira. Hizketaldira batu zen senegaldar batek galdategian lan egiten zuela azaldu zuen: “Labea 1.500 gradura egoten da, baina Alari esker aurre egiten diot; energia bidaltzen dit”.

Ramadanak irauten duen 30 egune-tan, musulmanek eskuzabalak izateko araua daukate. Eskuzabaltasuna euren erlijioaren oinarri dela azaldu dute: “Is-lama indarkeria bultzatzen duen erlijio

gisa ikusten dute batzuek, baina guztiz kontrakoa da: Koranak dio profetak errukia zabaldu zuela unibertso osoan”.

Erreportajearen, emakume musulma-nen ikuspuntua eman zuen Awa Sagna Elorrioren bizi den senegaldarrak. Andra eta gizonen arteko desberdintasuna he-rrialdearen arabera da, bere ustez. Erlijioak gauza asko ematen dizkio: “Ba-kea ematen dit, eta uste dut, lan eginez gero, zerbait ona ekarriko didala bihar.”



Igerilekuetara sartzeko, ilaran itxaron behar

Herririk herri - DURANGALDEA

> Uda. Uda hasierako beroaldiak eragin-da, Durangaldeko igerilekuak lepo bete ziren ekainaren amaieran eta uztailearen hasieran. Durangon, egun batean guztiz bete zen igerilekua, eta jendeak ilara egin behar izan zuen barrura sartzeko. Tabira-ko igerilekuek 1.668 lagunentzako edukie-ra dute. Elorrioren, uztailearen 4an, 900 lagun joan ziren igerilekuetara, eta Zornotzan, uztailearen 1ean, 677. Durangaldean, 19.000 lagunek dute igerilekuetako bonua.

Ume saharauiak aterpetxeetan

Herririk herri - DURANGALDEA

> Ume sahararrak. Uda honetan, hainbat ume saharai izan dira eskualdeko aterpe-txeetan. Izurtzan, urritasuna duten ha-maika saharauik hartu dute aterpea, Rio de Oro elkartearen bidez. Atxondon, aldiz, hamabost gaztetxo izan dira Axpeko ater-petxean, Hamadako Izarrak elkartearen ekimenez. Tindufeko kanpalekueetatik etorri dira, eta Euskal Herriko klimaren eta osasun zerbitzuen onurak jaso dituzte.



Silvia Triguerosen denboraldi bikaina

Kirola - ABADIÑO

> Mendi lasterketak. Uztailean, Goierri-ko Bi Handiak mendi lasterketa irabazi zuen Silvia Trigueros abadiñarrak. Den-boraldi bikaina egin du korrikalariak. Maiatzean, munduko trail txapelketan, taldekako sailkapenean zilarrezko domi-na lortu zuen bere taldeak, eta, ekainean, Mendi Lasterketen Espainiako Txapelke-tan, 35 urtetik gorako proban nagusitu zen Trigueros. Durango Kirol Taldeak maila ona erakutsi zuen txapelketa hartan, eta azpitxapelkun izan ziren. Horrez gain, Sil-via Trigueros laugarren gelditu zen Mont Blanc Ultra Trail txapelketan. Senior ka-tegoriako markarik onena egin zuen Eu-ropako lasterketarik gogorrean.





KONDIA

FORD KONDIA: Otaola etorbidea, 22
EIBAR . Tfnoa. 943 202 091

ZIORLA AUTOAK: Santamaña auzoa, 19
IURRETA . Tfnoa. 946 815 569

www.fordkondia.com

APARTEKO PREZIODUN FORD MODELO GUZTIAK ZUGANDIK HURBIL



FORD KUGA



FORD FIESTA



FORD C-MAX



FORD KA



FORD FOCUS



FORD COURIER

GAINERA, ZERBITZU HAUEK ESKAINTZEN DIZKIZUGU:

Ibilgailu berriak • Bigarren eskukoak • Mekanika eta
karrozeria tailerra • Flota eta ordezeko piezen departamendua



Barnetegian, euskara ikastea udako erronka

✚ **Herririk herri** - ZORNOTZA

> **Euskara.** Hizkuntza bat ikasterakoan, sarritan erronka nagusia hizkuntza erabiltzeko tokiak bilatzea izaten da. Udako oporraldian horren bila jotzen dute hainbat herritarrek Zornotzako Barnetegira. Euskara ikastaro trinkoetako ikasleekin izan zen ANBOTO, uda hasieran. Erreportajeon Guillermo Melgosa bilbotarrak egunerokotasunean euskara praktikatzeko aukera gutxi duela azaldu zuen. Jon Lezertua getxoztarraren helburua EGA ateratzea zen. Hanna Wright ingelesa ere izan zen Barnetegian, euskal kulturak eragindako jakin-minak bultzatuta.

Politikari liberatuen soldatak berba

✚ **Herririk herri** - DURANGALDEA

> **Politika.** Udal hauteskundeetan ostean, apurka-apurka Durangaldeko udalbatza berriek lehen erabakiak hartu zituzten. Uztailean, politikarien soldaten errepa-soa egin zuen ANBOTOk. Durangaldeko liberatuen soldatak ordaintzeko, guztira 900.000 euro bideratu dituzte. Durangoko alkatea da gehien kobratzen duena: 73.000 euroko soldata gordina. Zornotzakoak 67.000 euro kobratzen ditu, eta Abadiño-koak 57.000 euro. Ostean datoz Iurretakoak -55.000 euro- eta Berrizkoak -51.000 euro-.



Eriz Goiria futbolariak bigarren maila igoera

✚ **Kirola** - ZORNOTZA

> **Futbola.** Oraindik gaztea bada ere, Eriz Goiriak (Zornotza, 1987) talde asko eza-gutu eta esperientzia asko pilatu ditu futbolean. Esaterako, Bigarren B Mailarako igoera bi bizi izan ditu; azkena, aurtan, Gernikagaz. Zaleen eta jokalarien artean hartu-eman berezia egon dela dio, eta *play-off*etan, Urbieta futbol zelaian, egon den giroa azpimarratu du.



IZURTZA
UDALA
Tel.: 946 813 548
www.izurtza.net



Udari zukua ateratzeko prest

Herririk herri - DURANGALDEA

> **Oporrak.** Udari aste batzuk geratzen zitzaizkion oraindik, sasoi horretan lanean jardun zutenekin ANBOTOk erreportajea idatzi zuenean. Hondartza, mendia, atzerriko herrialdeak... Ikasurteko egunerokotasunagaz apurtzeko aukerarik ez da falta izaten udan. Baina, askok atseden hartzen duten bitartean, beste batzuek herria altxatu behar izaten dute. “Hik lan, eta nik jai!”, abestiak

zioen moduan. Zerbitzariak, izozki saltzaileak eta musikariak dira horren adibide. Onintze Murga Lopez izozki dendako saltzaileak azaldu zuenez, bere negoziatorako, abuztuan “ez dago ezta arimarik ere”. Kanpotik etorritakoak edukitzen dituztela gaineratu zuen: “Aurten, frantses ugari etorri da. Sasoi onenak udaberria eta irailetik sanfaustoak pasa artekoa izaten dira”.



“Ezin ditut partiduak ikusi; urduri jartzen naiz”

Berbaz - DURANGO

> **Saskibaloia.** 18 urte zituenetik, Tabirako saskibaloia taldean egon da Fede Mendi-zabal. Zortzi urtean izan zen jokalaria, eta gero, diruzain ibili da. Orain, Tabirakoko ohorezko presidente izendatu dute. Hala ere, partiduak ikustea kosta egiten zaio: “Partiduak ezin ditut ikusi; oso urduri jartzen naiz”.



“Polita litzateke eskualde mailako talde bat izatea”

Kirola - DURANGO

> **Errugbia.** Oskar Astarloa elorriarrak hartu zuen, abuztuan, DRTko gizonen taldeko entrenatzaile kargua, Ines Etxegibeletz utzi eta gero. Pausoz pauso joateko gogoa azaldu zuen Astarloak. Gaineratu zuenez, “polita litzateke Durangalde mailako errugbi talde potente bat izatea”.



Irene Sarrionandia, erronkaz erronka

Akuilua - IURRETA

> **Mendia.** Zegama-Aizkorri maratonia 53 urte zituela egin zuen, lehenengoz, Irene Sarrionandia. Oromiñoko Zugazagoitia baserrikoa den arren, orain Deban bizi da. Collaradako kilometro bertikal bikoitza egin zuen uztailean, eta Camille Extreme mendi lasterketa hamaika bider egin du.

SUKALDEAK ETA ETXEKO ALTZARIAK

SCHMIDT

Murueta auzoa, z/g-17B lokala · Eroski saltoki-gunea - ABADIÑO · Tel.: 946 526 195 · info@schmidt-abadiano.com

azken
3 etxebizitzak
salgai!



ERROTARITXUENA DURANGO

Errotaritxuena^{ren}
arrakastaren arrazoiak:

Finantzatzeko **ERRAZTASUNAK**

ASKOTARIKO tipologiak (1, 2, 3 eta 4 logela)

Terrazak etxebizitza **GUZTIETAN**

Mugarra alderako **BISTA** garbiak

Barneko **PLAZA** zabala

Auzoari **BURU EMATEA**

Gauzatzeko **URBANIZAZIO KARGARIK GABE**

SALTOKIAK eraikinetik oso gertu

Berdeguneak eta **LASAITASUNA**

ARRISKURIK GABEKO aukera

BALDINTZA BERRIAK KONTSULTATU

www.solvía.es SabadellGuipuzcoano



946 46 20 41
www.sukia.com



Zure etxean zaude
Estás en tu casa



EFE

Durangaldea errefuxiatuak hartzeko prest

Durangoko, Zornotzako eta Berrizko udalek errefuxiatuak hartzeko konpromisoa hartu dute

Herririk Herri - DURANGALDEA

> **Errefuxiatuak.** Siriako gerratik eta pobreziatik ihesi Europara datozen errefuxiatuen irudiek mundua aztoratu dute. Irailean, Durangoko, Zornotzako eta Berrizko udalek adierazpena onartu zuten errefuxiatuei elkartasuna adierazteko eta “merezi eta behar duten harrerara” egiteko. Babesa “eraginkorra eta iraunkorra” izan dadin eskura dituzten baliabideak aztertzen hasi ziren, hala nola, etxeak, nahiz eta erabaki zehatzik

hartu ez. Dinamika hori guztia Eusko Jaurlaritzagaz eta erkidegoko beste erakundeekin koordinatzeko borondatea agertu zuten.

Bizkaian, 520

Irailean batzartu ziren, lehenengoz, Jaurlaritzako, hiru aldundietako eta Eudeleko ordezkariak, koordinazio lanetako lehenengo erabakiak hartzeko. Bertan, “autonomia erkidegoa 1.000 erre-

fuxiatu hartzeko egoeran” dagoela ondorioztatu zuten. Kopuruaren banaketa herrialdeka eginez gero, Bizkaian 520 jasoko direla aurreikusi zuten, Bizkaiko Foru Aldundiko arduradunek ohar bidez esan zutenez. Gaia koordinatzeko, erakunde arteko batzorde berezi bat sortzea ere erabaki zuten batzarrean. Batzorde horretako kidea da Sergio Murillo durangarra, Bizkaiko Gizarte Ekin-tza saileko zuzendaria da eta.



Minbiziaren ikerkuntzan laguntzeko egutegiak

Herririk herri - ZALDIBAR

> **Minbiziaren kontra.** Minbiziaren aurkako ikerkuntzan laguntzeko egutegia kaleratu zuten irailean Zaldibarren. Lortzen duten diru guztia La Cuadri del Hospi elkarteari emango diote. 4.000 egutegien salmentatik, umeen minbiziaren ikerkuntzako proiektu bat bultzatzea da helburua. Zaldibarko hainbat herritar, zein kirol eta kultura arloko hainbat pertsona ezagun agertzen dira 2016ko egutegi horretan, batzuk soinean arropa gutxi dutela. Abenduaren 19rako minbiziaren inguruko ikerketan laguntzeko dirua biltzeko maratoi bat antolatu dute zaldibartar hauek.

Lau atxilotuak aske Madriletik pasatu ostean

Herririk herri - OTXANDIO

> **Atxiloketa.** Otxandioko jaietan Luzia Urigoitiari egindako oroimen ekitaldian “terrorismoa goratzea” egotzita, Asier Duran, Amaiur Lopez de la Calle, Miren Soloeta eta Aitor Uribe atxilotu zituzten irailaren 14an. Eloy Velasco epaileak abiatutako operazioan Guardia Zibilak Otxandioko gaztetxea miatu zuen, “terrorismoa goratu dezakeen material bila”. Atxilotuak Auzitegi Nazionaletik pasatu eta gero aske gelditu ziren. Otxandiora bueltan, egun haietan gertatutakoak “ez duela zentzurik” azaldu zuten: “Egoera honek eta bizitakoak gure ideietan berresteko indar gehiago ematen digu”.



Autzaganeko obrak oraindik geldu

Herririk herri - ZORNOTZA

> **Autzagane.** Aldundiak kontratua hautsi zuen irailean Autzaganeko tunela egiteko ardura zuen enpresa taldeagaz. Enpresen esanetan, ezin zioten lanei aurre egin, besteak beste, ingurumen eskakizunei lotuta sortu diren gailak. Tunela amaitzeko lanak geldirik zeuden hilabete baino gehiagoan, eta lanei berrekiteko Aldundiaren eskakizunak ez zituzten bete. Ondorioz, Aldundiak kontratua hausteko prozedura hasi zuen. Azaroan, berriz, obra amaitu ez zuen enpresa taldeari 4,2 milioi euroko zigorra ezarri zion Aldundiak. Lanak 2015ean amaitzea aurreikusten zuten. Enpresa horiei 63 milioi eurotan adjudikatu zieten proiektua.



Polemika Durangoko Enplegu Planagaz

Herririk herri - DURANGO

> Enplegu Plana. Durangoko Udalarik 6.200 euroko isuna ipini dio Jaurlaritzak, Enplegu Planean “arau haustelarrria” egitea egotzita. ELAk udalaren kontrako salaketak ipini zuen, eta udalak alegazioak egin arren, sindikatuari eman zioten arrazoia. Kontratazioa Sartu-Zabaltzenen bidez egin zuten. ELAren ustez, erakunde hori ez da aldi baterako lan enpresa bat, eta udalak ezin du formula hori erabili. Gai horrengatik, EH Bilduk Pilar Riosen dimisioa eskatu eta gero, zinegotzi sozialistak erantzuna plazaratu zuen: “Zer edo zer ondo egiten ibiliko gara ehun egun pasatu orduko ordezkatu nahigaituztenean. Aralar eta Bildu ez dira nor lekzioak inori emateko, udaletxean daudenetik ez baitute enplegu planik bultzatu. Gure bekatu bakarria epe luzeko hamaika langabetuk hilean 2.551 euro kobratzea izan da”.

“Ezkaratzean nuen butakan egiten nuen lo”

Berbaz - DURANGO

> Gure Kabiya. “Txikitoa pezeta batera igo genuenean manifestazioa egin ziguten txikiteroek”, gogoratu du Josefi Izacelaya Gure Kabiyaen sortzaileak, tabernaren 50. urteurrenean.



Mendilibar, hankak lurrean entrenatzen

Kirola - ZALDIBAR

> Futbola. Jose Luis Mendilibar Eibar taldeko entrenatzaileak denboraldi hasieran gogoratu zuen moduan, eibartarren helburua mailari eustea da. Hala ere, emailtzak uste baino hobeak izaten ari dira.



Zalloventaren berreskurapena martxan

Herririk herri - MAÑARIA

> Harrobia. Zalloventa harrobiaren berreskurapen prozesua martxan da. Harrobia betetzeko lurra Markomin Goikoako soberakinekin (210.000 metro kubiko) egingo zutela azaldu zuen irailean Endika Jaio Mañariko alkateak.

Jose Emilio Fernandez biktimen zerrendan

Herririk herri - ATXONDO

> Memoria. Jaurlaritzak motibazio politikoengatik eragindako biktimen zerrendan agertzen da Jose Emilio Fernandez elorriarra. Guardia Zibilak Arteako industrialdean tirokatuta hil zen 1978an. Elorrioko Montorra kalean Fernandez oroimenezko plaka bat dago.





Lopez Amankomunazgoko buru

Herririk herri - DURANGALDEA

> Politika. EH Bilduko Aitor Lopez izendatu zuten irailean Amankomunazgo-ko presidente. EAJk 36 urte egin ditu agintean, eta aldaketa historiko hori “ezkerretik” etorriko dela esan zuen presidente berriak. Pozik hartu zuen kargua Lopez zaldibartarrak. Beste hiru alderdiei elkarlanerako gonbidapena egin zien. Botoetan hamahiruna berdindu zuten EH Bilduk eta EAJk, eta Herriaren Eskubidea abstenu egin zenez, Lopez izendatu zuten presidente. Izan ere, EAJk hamaika ordezkari ditu,

eta Abadiñoko Independenteen botoei esker lortu ditu hamahiru.

Urrian, EH Bilduk eta Herriaren Eskubideak-ek akordioa sinatu zuten Amankomunazgoan gobernatzeko. Helburu batzuk adostu zituzten: bazterketa soziala saihesteko politikak garatzea, parte-hartze zuzena bultzatzea, eta udalekin lan eginez “eskualde ikuspegia berreskuratzea”. Lehentasunezko gaitzat hartu dituzte enplegua, industria garapena, berdintasuna, euskara, kultura eta garapen jasangarria.



Lehior Elorriaga

Durandog elkartearen elkarbizitzaren alde

Herririk herri - DURANGO

> Elkarbizitza. Durandog taldea elkarte bezala egituratu da aurrean. Elkarbizitzaren bila, hezkuntzan lan egin gura dutela azaldu zuten irailean ANBOTOn. Azaroan

txakurrak solte ibiltzeko hamazortzi gune izendatu zituen udalak. Ordutegi muga barik hamabi berdegune egongo dira erabilgarri, eta mugatuta, sei. Horrela, Durandogek hainbat bider eginiko eskaera bete dute. Bestalde, urrian txakur bat pozoindu zela eta, Landako inguruan arreta handitzea eskatu zuen elkarteak.



Aizpurua zuzenbidean aldaketak gauzatzen

Berbaz - DURANGO

> Zuzenbidea. Euskal Foru Zuzenbide Zibil berria indarrean da dagoeneko. Aldaketa horretan jardun du, besteak beste, Gontzal Aizpurua (Durango, 1966) Zuzenbidearen Euskal Akademiako zuzendari-tzakideak. Azaldu duenez, “horrela, Bizkaian dagoen dualtasun juridiko zibila desagertu egingo da”



Las Vueltas Begoña Sopelana oroitzuz

Herririk Herri - IURRETA

> Kooperazioa. El Salvadorreko Las Vueltas herriak Begoña Sopelaren oroimenezko monumentua inauguratu du. Era berean, Sopelana Iurretako kooperanteak herri horren alde egindako lana eskertzeko, bertako ordezkari instituzionalek Sopelaren familia bisitatu zuten irailean.



Euskaraz lagunartean berba egiteko gogoz

Herririk herri - DURANGO

> Berbalagun. Durangaldeko Berbalagun proiektua aurkeztu zuten irailean Platearuenean. Euskaraz jarduteko espazio bila hainbat talde sortu dituzte ikasturte honetarako, baita Mintzodromoa ere.



Jon Garaizabal Summun Art kolektiboan

Kutura - ELORRIO

> Musika. Jon Garaizabal Summun Art Kolektiboko kidea da, eta hainbat proiektutan dihardu lanean. Elorriarrak kontzertu berezia eskaini zuen bere herriko jaietan: “Harrotasun handia sentitu dut beti Elorriarritzean”.



Eskola legeztatzeko bidean lanean

Herririk herri - ATXONDO

> **Eskola.** Otsailean, EAEko Auzitegi Nagusiak baliorik barik utzi zuen eskola handitzeko Atxondoko Udalak Jaurlaritzari bere sasoian emandako lizentzia. Epai berak eskola legeztatzeko jarraitu beharreko ga-koak ematen zituen, eta, harrezkero, bide horretan ibili da udala. Uztailean, plan berezi bat onartu zuten, auzitegiak eskatutako informazioagaz. Horrez gain, eskolako gune haren inguruko arau subsidiarioen aldaketa puntuala egin zuten. Proposamenak eskola inguruko auzokideen alegazioa jaso zuen, baina udalbatzarrak ez zuen alegazioa onartu, eta aldaketa behin-behinean onartu zuen. Orain, Aldundia-ri dagokio behin betiko onartzea. Auzotarrak ez daude eraikina egitearen aurka: “Herrian zabaldu da ez dugula eskola egi-terik nahi, eta hori gezurra da. Eraikina gorago egitea baino ez dugu eskatu”.

Ganorabakoak taldearen crowdfunding berezia

Kultura - MAÑARIA

> **Musika.** Ganorabakuek taldeak *crowd-funding* kanpaina jarri du. Internetez egin beharrean, aurrez aurre txartelen bi-dez eskatu diote jendeari laguntza. Laster kaleratuko dute diskoa.



Milikua Berrizko eta Garaiko idazkari ohia

Akuilua - GARAI

> **Jubilazioa.** Lazaro Milikuak erretiroa aurtu du, urteetan Berrizko eta Garaiko idazkari jardun eta gero. “Uste dut errespetatua izan naizela eta nik ere errespetuz jokatu dudala”, esan zuen elkarrizketan.



Sagardoy eta Arkarazo, ‘Sanctuaire’ filmean

Kultura - DURANGALDEA

> **Zinea.** Eneko Sagardoy eta Felix Arkarazo aktore durangarrek parte hartu du-ten *Sanctuaire* filma aurkeztu dute aurten Donostiko Zinemaldian. Canal+ Francek telebistarako ekoiztako filmak ETaren eta GALen inguruan dihardu.

Legañoko indusketa lanak amaitu dituzte

Herririk herri - BERRIZ

> **Arkeologia.** Aurten hamazazpi hilerri topatu dituzte Legañoko Erdi Aroko hilerrian, eta baita kanposantuaren hegoaldeko muga ere. Badakite hilerria zelakoa zen, gutxi gorabehera, baina hari lotutako herrixka non zegoen oraindik misterioa da arkeologoentzat.



ekin

ekin S. Coop.

Arriagane Industrialdea (Boroa auzoa)

48340 AMOREBIETA

www.ekin.es

ner group



Umeen iritziagaz Mañaria koloreztatzen hasi dira

Herriko hamar umeren ekarpenarekin udal aurrekontuen 10.000 eurogaz zer egin erabakiko dute Mañarian

✚ **Herririk herri** - MAÑARIA

➤ **Gazteak.** Mañarian, herriko hamar ume udal aurrekontuko 10.000 eurogaz zer egin erabakitzen hasi dira. Kantitatez diru kopuru txikia izan arren, egitasmoak balio handia eduki dezake herriko zerbitzuak antolatzeari begira, eta, gainera, etorkizuneko partaidetza ereduatarako esperientzia bat izan daiteke. Urrian lehenengo tailerra egin zuten, jolasa oinarri hartuta; umeak, mozorrotuta, euren ametsak gauzatzeko superheroi

bihurtu ziren, eta euren iritzi bereziagaz herria koloreztatzen hasi ziren.

Urtxintxa elkarteko kideek prestatu zuten dinamika. Lehenengo, herrian zer egin nahi zuten pentsatzea eskatu zieten umeei, eta gero, ideia hori marraztea edo plastilinaz lantzea. Beñatek skate parke bat marraztu zuen, eta tirolina bat Uri tzek: “Durangon ibili nintzen tirolinan, eta herrian bat ipintzea gura dut”. Eskulanak egitea irudikatu zuen Intzak, eta


igerileku bategaz edo arboletan eginiko etxeekin amestu zuten beste batzuek. Ideia horiek guztiak udaleko batzordean aztertuko dituzte teknikariekin, eta hurrengo barikuan umeekin egin zuten bigarren tailerrean ideien bideragarritasuna azaldu zieten. Gainera, ekimenak asmo pedagogikoa ere badu, Endika Jaio alkatearen arabera: “Umeak garrantzitsu sentitzea gura dugu, eta ilusia egingo diela uste dugu”.



Etxeak alokairuan ipintzeko programa

✚ **Herririk herri** - DURANGO

➤ **Etxebizitza.** Durangon 1.500 etxe hutsetik gora daude, baina jabeak ez dira alokairuan ipintzera animatzen. Eusko Jaurlaritzaren Alokabide programak ere ez du lortu alokairu eskaerei erantzutea. Egoeira ikusita, alokairurako programa pilotu bat lantzea pentsatu du udalak. Aitziber Irigoras alkateak eta Pilar Ríos alkateordeak aurkezpenean adierazi zutenez, etxe hutsen jabe askok “beldurra edo aurreiritziak dituzte” alokairuaren inguruan.



Testigu aldaketa Plateruenean

✚ **Berbaz** - DURANGO

➤ **Kulturgintza.** Hamaika urtez Plateruena Kafe Antzokiko kudeatzailer izan den Beñat Gaztelu-Urrutiak Liher Granadosi lekukoa eman dio. Batak besteari egingako elkarriketa kaleratu zuen urrian ANBOTOk. Gaztelu-Urrutiak proiektu gertu jarraitzen duen arren, Granados da orain antzokiko buru. Kudeatzailer berriak azaldu duenez, Plateruena oreka lortzea da bere helburua: “Ez naiz oreka ekonomikoaz bakarrik ari; proiektu berriek ekar ditzaketen onurez ere ari naiz”. Atzera begira jarrita, urte hauetan gizarteak aldatu den heinean Plateruena ere aldatu egin dela gogoratu du Gaztelu-Urrutiak.

Neskak Dantzari-dantzan San Fausto jaietan

✚ **Herririk herri** - DURANGO

➤ **Jaiak.** Sanfaustoetako sorpresetako bat herriko dantza taldeetako kideez osatutako neska-mutilen taldea Dantzari-dantzan ikustea izan da. Horrez gainera, aurtengo txosna gunea Landako Gunean egokitzek ere zeresana eman du. Jaiei ostean txosnetako ordezkariak ez dute balorazio onik egin: “Oso zaila izan da gune horretan jai giroa sortzea”.





Angelman sindromedun umeen aldeko jaialdia

Herririk herri - DURANGO

> **Jaialdia.** Jonen gurasoak dira Idurre Baraia eta Arkaitz Urretxa, eta Haizearenak Luisma Reyes eta Ainhoa Mendo. Garamen psikomotorea kaltetzen duen Angelman sindromea dute umeek. Bifamilia horien ekimenez, jaialdia egin zuten urrian, Landako Gunean, gaixotasun arraroa ezagutarazteko eta ikerketa laguntzeko. Ekitaldiak espero baino arrakasta handiagoa izan zuen. Sarrera moduan salgai jarri zituzten pultserak berehala agortu ziren, eta jendea bete zen Landako Gune barruko zein kanpoko espazioa.

Udalaren erantzunaren zain daudela dio DAZek

Herririk herri - DURANGO

> **Alde Zaharra.** Alde Zaharreko DAZ auzo elkartearen arabera, Durangoko Udalak ez die erantzunik eman urtebetean. 2014ko urrian, karkaben inguruko eskaera bat erregistratu zuten, eta urtebete pasata, oraindik erantzun baten zain daudela kritikatu zuten urrian emandako prentsurrekoan. Tabernariei jaietan karkabak biltegi lez erabiltzeko baimena eman zien udalak, eta hori zergatik egin zuten jakin gura zuten auzokideek. Izan ere, euren ustez, larrialdi egoera baten kasuan tabernetako kaxa eta materialek karkabetako bidea oztokatuko lukete.



Elorrioko nesken futbol taldea indartsu

Kirola - ELORRIO

> **Futbola.** Iaz Elorriok Euskal Ligarako igoera lortu zuen, bere historian lehenengoz. Ane Ibarra, Irati Alberdi eta Itxasne Larruskain taldeko hiru kapitainak dira, eta beraien ibilbide osoa Elorrioren darimate. Elkarriketaz azaldu dutenez, "jokalarien arteko kohesioa da taldearen indargune nagusia". Gaineratu dutenez, "zuzendaritzatik baloratuak sentitzen gara; mutilekin berdintasunean tratatzen gaituzte".





Lehior Elorriaga

‘Garita’, zesta-puntalarien saga

Kirola - DURANGO

> Zesta-punta. Zesta-puntaren munduko saga mitikoetako bat osatzen dute ‘Garita’ aita-seme durangarrek. 60ko hamarkadan jo zituen lehen pilotakadak Pedro Mari Garciak (Zaldibar, 1950). ‘Garita’ lez egin zen ezagun, eta Amerikako Estatu Batuetara joateko aukera eduki zuen. Han jaio ziren Gotzon (1977) eta Iñaki (1981). Gerora, eurek ere ‘Garita’ ezizena hartu zuten, eta aitaren bide profesionalari jarraituta, Amerikara bidaia ere egin zuten. Iñaki profesional mailan dabil oraindik. Hirurei eginda-

ko elkarrizketan Gotzonek zesta-puntaren egoeraz hitz egin zuen. “Kontua da ez dela kirol huts bat galtzen ari garena, gure kulturaren zatitxo bat baizik. Beti entzun izan dut gure aitaren sasoiaren jendea zutunik egoten zela, *Kas* kaxen gainean! Baina nik ez dut hori ezagutu. Zeinek daukan errua? Bada, denok apur bat, seguruenik. Instituzioek-eta zerbait egin behar dutela? Bai, baina denok ipini behar dugu zerbait. Propaganda ona eginez gero, ikusi da zelako giro polita egon den herriko jaietan”.

Trañabarren kalean TAO jartzea onartu dute

Herririk herri - ABADIÑO

> Aparkalekua. Trañabarren kalean aparkaleku mugatua arautzeko ordenantza onartu du Abadiñoko udalbatzak. Gobernu taldeko Abadiñoko Independentiek eta EAJ alderdiek babestu zuten proposamena, eta abstenitu egin zen EH Bildu. TAO sistemak trafikoa “ordenatzeko” balioko duela azpimarratu zuen Eneko Etxebarria jeltzaleak. Mikel Urrutia EH Bilduko bozeroaleak aldiz, “auzoan dagoen arazoaren azterketa estrategiko” baten falta azpimarratu zuen, eta onarturikoa “konponbide partziala” zela esan zuen.



Sinadurak anbulantzia medikalizatua jartzeko

Herririk herri - DURANGO

> Osasuna. Durangaldean anbulantzia medikalizatua ipintzea eskatzeko sinadura bilketa sustatu du PSE-EEk, eta 2.000 inguru jaso dituzte. Eusko Legebiltzarrean aurkeztu zituen Idoia Agorriak sinadurak. Hilabeteetan zehar egindako eskaerei “entzungor” egitea egotzi dio Agorriak Eusko Jaurlaritzari.



Alokabidek eskatutako kaleratzea eragotzita

Herririk Herri - ZORNOTZA

> Etxebizitza. Zornotzako Ogenbarrena kalean etxe kaleratze bat eragotzi zuten urriaren 30ean. *Afectados por la hipoteca* plataformak deituta, kontzentrazioa egin zuten etxebizitzaren parean, eta etxe kaleratzea eragozteko lortu zuten. Pisua Alokabiderena da.



Profesionaletan azken partidua

Kirola - ELORRIO

> Pilota. Bost urtez profesionaletan aritu ostean, Iñaki Larrinaga pilotari elorriarrak azken partidua jokatu zuen sanma-teotan. 26 urtegar oraindik gaztea da, eta afizionatueta jarraituko duela dio.



Lehior Elorriaga

Elikagaien Bankuagaz hitzarmena berriztu dute

Herririk herri - ELORRIO

> Gizarte ongizatea. Elikagaien Bankuagaz batzbesteko zazpi familia lagundu dituzte hilero Elorrioren. Horrela, Elikagaien Bankuaren proiektua beste bi urtez luzatzea erabaki dute Elorrioko Udalak, Eroskik eta Kainabera elkarteak.

AEK-ko jubilatuen laguntza bereziak

Herririk herri - DURANGO

> **Euskara.** AEKn ikasten duten jubilatuen haserre daude, ikasturte honetan Gizarte Ekintzatik jasotzen zuten diru-laguntza kendu dielako Durangoko Udalak. AEK-ko kideek transmisioaren garrantzia azpimarratu eta udalaren erabakia kritikatu zuten. EAJk eta PSE-EEk publikotasunaren alde egitearren babestu zuten AEK-ko ikasleei laguntza kentzea. Pilar Ríos Gizarte Ekintzako zinegotziak azaldu zuen ez doazela ikasleen kontra: “Gure asmoa ez da taldeak apurtzea, baina baliabideak egoki erabili gura ditugu”.



Udala eta Gogora oroimena lantzen

Herririk herri - OTXANDIO

> **Memoria.** Otxandioko Udaleko ordezkariak eta Gogora Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuko zuzendari Aintzane Ezenarrok batzarra izan zuten Lehendakaritza, urrian. Urtzi Armendariz Otxandioko alkatea (EH Bildu) eta Beñat Gorospe zinegotzia (EAJ) izan ziren udaleko ordezkariak. Biktimen memoriaren testuinguruan, Lutxi Urigoitiaren kasua izan zuten berba. Lehen kontaktua izan zen, eta ez zen konpromisorik adostu, baina gaiaren ikuspegi orokorrean bat etorri ziren.

‘Un Otoño Sin Berlín’ filmaren emanaldiak

Herririk herri - ZORNOTZA

> **Zinea.** Donostiako Zinemaldian aurkeztu zuten *Un otoño sin Berlín* filmaren doa-ko emanaldiak egingo zituzten, urrian, Zornotza Aretoan. Lara Izagirre zinegile zornotzarrek azpimarratu zuenez, “filma egiterakoan herrikideek erakutsi diguten laguntza eskertzeko” egin zituzten zornotzarrentzako zortzi emanaldi bereziak.

Zornotzan grabatu zuten filma, eta Izagirreren berbetan, “zentzu baten zornotzar guztiena da filma”. Gariza Produzioak ekoiztetxeak bideo berezi bat egin zuen grabazioko irudiekin.



IURRETAKO UDALA

Tel.: 946 201 200

www.iurreta.eus

25

Iurreta
Eleizateko Udala



86 eraso sexista salatu dituzte

Herririk herri - DURANGALDEA

> **Indarkeria matxista.** Durangaldeko 86 emakumek salatu dituzte aurten eraso sexistak, eta eraso horietatik 41 Durangon izan dira. Azaroan Durangoko Udalak zabalduko datuak dira horiek, Gizarte Zerbitzuek, Ertzaintzak eta Osakidetzak emandakoak. Hain zuzen ere, Durangaldeko kale, eskola eta udalak indarkeria matxistaren aurkako mezuekin bete ziren azaroaren 25eko Emakumeen Kontrako Indarkeriaren

Aurkako Nazioarteko Egunaren harira. Durangon, adibidez, eguerdian elkarretaratzea egin zuten, eta, iluntzean, jende ugari bildu zuen Plataforma Feministak deitutako manifestazioak. Protesta ekitaldiak egin zituzten baita Abadiñon, Berrizen, Elorrión, Iurretan, Mallabian, Zaldibarren eta Zornotzan ere. 016 da eraso sexisten aurrean laguntza eskatu ahal izateko telefono zenbakia.



Lariztorre Andragune izateko proposamena

Herririk herri - DURANGO

> **Emakumea.** Lariztorre Durangoko Andragune bihurtzea proposatu du EH Bilduk, Pinondoko espazioa txiki geratu delakoan. Diotenez, momentua da elkarteek eskatutako eraikin propio eta erreferentziala gauzatzeko. Turismo Bulegoa Kuru-tzesantu museora eroatea proposatu dute.



Futbola utzi behar izan duen Apraizi omenaldia

Kirola - ZORNOTZA

> **Futbola.** Joan zen denboraldi amaieran, Amorebietako jokalaria zela, futbola uztea erabaki zuen Jon Apraizek (Eibar 1987), bihotzeko arazoengatik. Urritxen omenaldia eskaini zioten azaroan; berak bezala “futbola utzi behar izan duten lagunekin” asko akordatu zela azaldu zuen.



“Sentsazio kontrajarriak sortzen dizkizu Indiak”

Akuilua - ABADIÑO

> **Indian zehar.** Neskalaguna eta *Poderosa* motorra bidailagun dituela Indian zehar harrapatu dugu Arkaitz Munitxa. Hainbat bider entzundako ‘Indian dena da posible’ esaldi horren zergatia ezagutu guran joan zen. Han bizitakoak azaldu dizkigu.





RENAULT
Passion for life

Bigarren eskuko ibilgailuek espazio zabala behar zuten, eta eman egin diegu.

GAURSA OCASIÓN

ESPAZIO ZABALA

BIGARREN ESKUKO IBILGAILUAK IURRETAN

Kalitate handia eskaintzen dugulako (ehun puntutan baino gehiagotan errebisatutako autoak); 24 hilabeterainoko bermea ematen dugulako; stock handia eta marka guztietako ibilgailu-aukera zabala dugulako; gure prezioak azken prezioak direlako; finantziazio-baldintza ezin hobeak eskaintzen ditugulako... Eta beste hainbat arrazoi tarteko, bigarren eskuko ibilgailu baten bila bazabiltza, zatoz **IURRETAKO GAURSA ZENTRO HANDIRA.**



RENAULT
OCASIÓN

ZER EZ ZENUKE EMANGO HORRELAKO AUTO BATENGATIK

GAURSA

Arriandi, 12. Tel. 94 620 33 00. IURRETA www.gaursa.com



Zelaietakohirigintza-planaezbaian

Herririk herri - ABADIÑO

> **Hirigintza-berrantolaketa.** Zelaieta auzoa-ren berrantolaketa urbanistikorako proiektua osotu, eta hilabeteko epea za-baldu zuen udalak, herritarrek alega-zioak aurkeztu ahal izateko. Proiektuak Txanporta plaza eta ingurua oinezkoen-tzat egitea jasotzen du, besteak beste. Zamalanetako ibilgailuak baino ezingo dira sartu plazara, ordutegi mugatu ba-tean. Bestalde, autoak hiru lekutik sar-

tu ahalko lirateke Zelaietara: Iturritxo kaletik, Kalbariotik eta Muntsarazetik. Proposamenaren oinarrian, aurreko legealdian herritarrek egindako parte-hartze prozesua dagoela dio Navarro alkateak. EH Bilduk, ostera, berrantolaketa urbanistikoa “ondo landutako parte-hartze prozesu batekin garatu” behar dela dio, eta herritarren 350 sinadura batu ditu horren alde.



Babeseko etxe huts gehien duen bigarrena

Herririk herri - DURANGO

> **Etxebizitzak.** Durango da babeseko etxe huts gehien duen EAEko bigarren herria, Gasteizen atzetik. Jaurlaritzak bultzatu-tako San Rokeko etxeetan, 144tik 42 adju-dikatu gabe daude. Udalak sustatutako Faustegoienako promozioan, berriz, beste 20 daude jabe zain. Hartara, Durangon 62 etxe daude emangabe; eta, 409 lagunek uko egin zuten San Roken eta Faustegoienan. EH Bilduk zabaldu ditu datuok, “etxebizi-tza politika negargarria” erakusteko.

40 urtean konpondu gabe dirauen gatazka

Herririk herri - DURANGALDEA

> **Sahara.** 40 urte bete dira Espainiak Men-debaldeko Sahara Marokoren esku utzi zuenetik. Berehala etorri zen Marokoren okupazioa, milaka saharar erbestera eka-rri zuena. Konpondu gabeko gatazkaren lekuko diren Tindufeko (Aljeria) kanpa-menduetan izan ziren Jon Basaguren eta Odei Arrizabalaga. Bestalde, Udal Kon-tseiluak gonbidatuta, Polisarioko orde-zkaritzako Lih Beiruk Berrizen izan zen.



Hontza Museoak 2.100 bisitarigaz bete du urtea

Herririk herri - MAÑARIA

> **Urteurrena.** Hontza Museoak 2.100 bisitaritik gora jaso ditu lehenengo urtemu-gan. Enrique Huerta museoko presiden-teak 37.000 ale ditu gordeta, eta museoan 650 daude ikusgai. *Munduko Moluskuak* erakusketa egokitu, eta Afrika eta Ameri-kako hogeiei pieza berezitik gora jaso ditu: lehoiak, jirafa, puma argentinarra...



Iron Manen rankingean, munduko onenen artean

Kirolak - IURRETA

> **Triatloia.** Iron Manen rankingean mun-duko hamar onenen artean amaitu du Gurutze Fradesek denboraldia: “Ez nuen espero nire mailan horren saltogarrantzi-tsua ematea”. Aukera handiak ditu 2016ko munduko txapelketara sailkatzeko.



Pediatra euskalduna izaten jarraitu gura dute

Herririk herri - ELORRIO

> **Osasuna.** Jubilatzekoa den pediatraren ordezkoa euskalduna izateko eskari ofi-ziala egin dio Idoia Buruaga alkateak Osa-kidetzari. Euskararen normalizazioaren bidean aparteko garrantzia eman dio.



Adostasun falta Memoriaren Egunean

Herririk herri - DURANGALDEA

> **Memoriaren Eguna.** Eusko Jaurlaritzak omenaldi bateratuak egiteko deia egin zuen, baina, aurtengo Memoriaren Eguna, oraindik adosteko asko falta dela erakutsi zuen. Durangon eta Zornotzan egin zituzten indarkeariaren biktimak oroitzeko ekitaldiak. Durangon, EH Bildu bertaratu egin zen, baina ekitaldi partziala zela kritikatu. PPK, oster, ez zuen parte hartu; Jaurlaritzaren proposamenagaz ez zuen bat egin. PP izan ezik, gainerako alderdietako kideak egon ziren, Aitziber Irigoras alkatea buru. Rosa Vadillok egin zuen lore eskaintza, ETak Durangon hil zuen Epifanio Vidalen alargunak. Zornotzan alderdi guztiak egon ziren, baina PP ez dago ordezkatuta udalean.

Obra handien ametsa, amesgaizto askorentzat

Herririk herri - DURANGALDEA

> **Azpiegiturak.** Garraio sarea hobetzeko helburuz, obra handi ugari jarri dituzte martxan Durangaldean, eta, azken urteotan, azpiegitura handien ametsa amesgaizto bihurtu da hainbat auzotarrentzat. Autzaganeko tunela, Gerediaga-Beasain autobidea eta Abiadura Handiko Trena (AHT) dira gurean eragin handiena dutenak. Tabirako igerilekuetako AHTaren tunelak eta Autzaganeko obrek kaltetutakoen bizipenak jaso ditu ANBOTOK.



Abadiñoko sokatiralariak Munduko Txapelketan

Kirola - ABADIÑO

> **Sokatira.** Goma gainean, munduko sokatira talderik onenetakoa da Abadiñokoa, dominak irabaztera ohitua. Herbehereetan jokatu den Munduko Txapelketan egongo da, otsailean. Baina, lesio eta egoera pertsonalek kolokan jarri zuten abadiñarren parte hartzea, azaroan. Bizitako egoera azaldu du taldeko beteranoetako batek, Txabi Ardanazak. 1980 inguruan hasi zen, eta 54 urte gaz, gogotsu dabil.





Nagore Txintxurreta

“Herriminik ez daukat ja, baina memoria bai”

Joseba Sarrionandia idazleak azokaren testuinguruan bere oroitzapenen inguruan berba egin du ANBOTOn

Herririk herri - DURANGALDEA

> **Elkarriketa.** Joseba Sarrionandia idazle iurretarrak presentzia bikoitza izan du Durangoko Azokan. Alde batetik, azokaren inguruko liburua idatzi du Jesus Mari Arruabarrenagaz eta Txelu Angoitiaz. Bestetik, *Lapur banden etika ala politika* saiakera kaleratu du. Testuinguru horretan, idazle iurretarrari ANBOTOn egindako elkarriketan, oroimenean dituen azoken inguruan berba egin zuen. “Zortzi edo bederatzirtekin joango

nintzen azokara lehenengoz, Andra Mari-ko elizpean egiten zenean. Martxan-terak ere han lekuren batean izango ziren orduan. Gauza berezia zen, euskararen aterpea; euskal astea derrepente, erdal urtean”. Herriminik ez duela ere argitu zuen. “Herriminik ez daukat ja. Baina memoria bai, ume denborarena ere bai. Ni erdi memorian bizi naiz, batzuk Eor-rrion eta beste batzuk Brasilen bizi diren lez. Ni Memoriako herritarra naiz”. Kata-

luniako egoeraren inguruan ere bere iri-
tzia argi utzi zuen. “Espainia da emaztea
gaizki tratatzen duen eta dibortziatu nahi
ez duen senarra bezalakoa. Ez da kontura-
tzen, maite badu, eta bestearekin bizitzea
nahi badu, ezin duela horrela tratatu, eta
etxean nahi ez badu, ere ez. Etxetik irte-
ten, paseo bat ematen ere ez dio utziko. Se-
guru biolentzia domestikokoen antzeko
portaerak izango dituela Espainiak Kata-
luniarekin hemendik aurrera”.



Durango Compact of Mayors ekimenean

Herririk herri - DURANGO

> **Jasangarritasuna.** Klima aldatetaren aurkako borrokan erreferentzia hartzen dabil Durango. 11 kilometroko bidegorria, oinezkoentzako guneak, Berdeago azoka, Udalerri Jasangarriari saria, mugikortasun jasangarria bultzatzeko kanpainak ikastetxeetan... Duela aste bi, Compact of Mayors ekimenagaz bat egin zuen. Aitor Larruzea udal teknikariak aurreratu due-
nez, 2016an martxan egongo da organikoaren bilketa.



Lehior Elorriga

Iurretapedia ekimena denen artean sortzen

Herririk herri - IURRETA

> **Wikipedia.** Euskal Herrian ekimen aitzindaria jarri du martxan Iurretako Bi-
bliotekak. Izan ere, Wikipedian Iurretako atalari dagokion informazioa herriko el-
karte, eragile, eta norbanakoei elkarla-
nean idazten dihardute. Ez da erronka
makala esku artean dutena; abenduaren
12an, Ibarretxe kultur etxean parte-har-
tzaile guztiak batzeko hitzordua jarri zu-
ten, Wikipediaren Iurretako orrialdeari
dagozkion edukiak elkarlanean idazteko.
Besteak beste, Gurutze Frades kirolaria,
Anderebide emakume elkarte, dantza
taldea, ikastetxeak, Fasoden Maliko el-
karte, eta udala dira parte-hartzaileen
aniztasunaren adierazle.

“50. urtemuga borobila izan da”

Kultura - DURANGO

> **Durango Azoka.** Durango Azokako antolatzaileak pozik agertu dira 50. ur-
teurreneko emaitzarekin. Nerea Mujika
Gerediaga Elkarteko presidenteak azal-
du duenez, “50. urtemuga borobila izan
da. Bisitari aldetik, salmenta aldetik, gi-
ro aldetik, egitarau aldetik, sentsazio al-
detik...”. Erakustokietako arduradunak
ere “pozik” agertu dira aurtengo azoka-
rekin.





Ahal Dugu indartsu sartu da Durangaldean

Herririk herri - DURANGALDEA

> **Espainiako Kongresua.** Abenduaren 20ko hauteskundeetan EAJ izan da indar bozkatuena Durangaldean. EH Bilduk jaitsiera nabarmena izan du. Durangon eta Zornotzan, Ahal Duguk EH Bilduk baino emaitza hobeak lortu ditu. Abadiñon, Ahal Dugu izan da indarrik bozkatuena. Herririk herri, Atxondon, Berrizen, Durangon, Garain, Iurretan, Mañarian eta Zornotzan EAJ izan da alderdi bozkatuena; Elorrión, Izurtzan, Mallabian, Otxandion eta Zaldibarren, oster, EH Bildu.



Bikain Ziurtagiriaren sari banaketa

Herririk herri - DURANGALDEA

> **Euskara.** Iñigo Urkullu lehendakariak Euskararen Kalitate Ziurtagiriak banatu zituen abenduaren 21ean Gasteizko Euro-

pa Jauregian. Koikili aterpetxeak, Kuru-tziaga Ikastolak eta Anboto Komunikabi-deak-ek Urrezko Bikain Ziurtagiria lortu dute, eta San Jose Jesuitak ikastetxeak Zilarrezkoa. 2015ean 65 erakundek esku-ratu dute errekonozimendu hori, inoizko kopururik altuena.



Paul Abasolok feminista bat salatu du

Herririk herri - DURANGO

> **Auzia.** Plataforma Feministak jakinarazi zuen abenduan Paul Abasolok feminista bat salatu zuela epaitegian. Abasolori 3 urte eta erdiko kartzela zigorra ezarri zioten sexu erasoengatik, baina Espainiar Gobernua indultua eman zion 2011n. Udaleko Berdintasun Kontseiluak aho batez hartu du feminista babestu eta bere gastu judizialak ordaintzeko erabakia.



**ZALDIBAR
ELIZATEKO UDALA**
Tel.: 946 827 016
www.zaldibar.eus



gozatu euskaraz

Euskara airean dago: egunerokoaren txoko guztietara zabaldu da, eta nahi duguna adierazteko eta lortzeko erabil dezakegu.

Egin dezagun hegaz euskararekin eta euskaraz lagunekin, kideekin, neska-mutil berezi horrekin... noranahi heltzeko. Geure modura.

www.bizkaia.net



Bizkaiko Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Bizkaia